

KUDEAKETA TXOSTENA

BATZORDE ERAGILEAREN
KONTU EMATEA




**LANGILERIA ANTOLATU,
GIZARTEA ERALDATU**
MÁS SINDICATO, MÁS VIDA

ELA
EUSKAL SINDIKATUA

2025-6-2/3
EUSKALDUNA JAUREGIA
16. KONGRESUA

KUDEAKETA TXOSTENA

BATZORDE ERAGILEAREN
KONTU EMATEA



**LANGILERIA ANTOLATU,
GIZARTEA ERALDATU**
MÁS SINDICATO, MÁS VIDA

ELA
EUSKAL SINDIKATUA

2025-6-2/3
EUSKALDUNA JAUREGIA
16. KONGRESUA

0. Sarrera >>>	7
1. Aurkako testuinguru gero eta zabalagoa >>>	8
1.1. Munduko ordena berria: desberdintasun handiagoa, erronka klimatiko larriagoa eta politika erreakzionarioen gorakada.....	8
1.2. Europa neoliberal honetan eskuin muturrak eta belizismoak aurrera egiten dute.....	9
1.3. Espainiako gobernu hauskorra, Estatua berresten ari den testuinguruan	10
1.4. Krisi politikoa Frantzian: neoliberalismoa, autoritarismoa eta eskuin muturraren gorakada	11
2. Politika neoliberalak darraite eta erantzun sindikal eta soziala handitu da Euskal Herrian >>>	12
2.1. Gasteiz eta Iruñeko gobernuak aldatu dira, baina politika neoliberalak jarraitzen dute.....	12
2.2. Mobilizazio sindikal eta sozialak eraso neoliberalaren aurrean.....	13
2.3. Garaipen sindikal garrantzitsua etengabeko zentralizazio eta aurkakotasunaren erdian	13
2.4. Autogobernuaren higadura	13
2.5. Euskararen aurkako ofentsiba	14
2.6. Estatus politiko berriari buruzko ezkutuko eztabaida.....	14
2.7. Ezkerrak oposizioa egin eta programa alternatiboa eraikitzeari uko	15
2.8. Ipar Euskal Herriaren etorkizuna eraikitzen: estrategia, elkartasuna eta ekintza soziala	16
3. Bidezko gizarte eredu baten alde borrokan >>>	18
3.1. Borroka sozialari bultzada behar sozialak handitzen ari direnean.....	18
3.2. Elkarlana eta mobilizazio soziala aberastasunaren birbanaketa bidezkoago bat lortzeko.....	18
4. Lorpen handiko negoziazio kolektiboa >>>	20
4.1. Azken urteetako estaldurarik handiena	20
4.2. ELAk sinatutako hitzarmenak: baldintza onenen bermea.....	20
4.3. Gobernuen blokeoa eta langile publikoen borroka.....	21
4.4. Euskal Herria, lan-baldintzak hobetzeko borrokaren erreferente	21
4.5. Genero-ekitatean ere aurrera negoziazio kolektiboan	22
5. Indar eta zilegitasun sendoa, 9.500 ordezkari eta 104.000 afiliatu baino gehiagorekin >>>	23
5.1. Euskal Herriko sindikatu nagusia: datuek babestutako hegemonia	23
5.2. Afiliazio handiagoa, parekideagoa eta anitzagoa.....	23
6. Eraginkortasuna areagotzeko antolakuntza prozesu garrantzitsuak abian >>>	25
6.1. Antolakuntza eredu sendo eta eraginkorra garatzeko urratsak.....	25
6.2. Elkar zaindu eta babesteko neurriak	26

7. Borroka juridiko eredugarria ekintza sindikala indartzeko >>>	27
7.1. Epaitegietan lortutako garaipen esanguratsuak.....	27
7.2. Prekaritatearen aurkako eta genero ekitatearen aldeko estrategia juridikoa	28
8. Ildo estrategikoen garapenean emandako aurrerapausoak >>>.....	29
8.1. Lan egiteko erak sistematizatzen eta hobetzen ari gara.....	29
8.2. Genero ekitaterako plana aurrera doa.....	29
8.3. Sindikalizazioa errotzen	30
8.4. Militantzia: sakondu eta zabaltzeko beharrekotako lanketa.....	31
8.5. Prekaritatearen aurkako borroka gure ardatz bihurtzen ari da.....	32
9. Gure ekintza sindikala indartu duten arloak >>>.....	34
9.1. Azterketa bulegoa: politika publikoen analisi kritikoa eta gizarte justuago baterako proposamenak	34
9.2. Ingurumena: trantsizio ekosozial justu baterako urratsak	35
9.3. Ekintza soziala: gizarte eraldaketan eragiten	36
9.4. Genero politikak: lan mundua eta gizartearen eraldatzen.....	36
9.5. Euskaraz lan eta bizitzeko borroka	37
9.6. Lan osasuna eta Bidelagun: langileen osasuna eta bizitzaren babesteko estrategiak eta tresnak	38
9.7. Negoziazio kolektiboko kabinetea: enpresen azterketa tekniko eta ekonomikoa ekintza sindikalerako	39
9.8. ERE eta konkurtso taldea: enpresen mehatxu eta itxierari aurre egiteko tresna	39
9.9. Kabinete Juridikoa: gai juridikoak sakondu eta estrategia sindikalari laguntzeko tresna	40
9.10. Ekintza sindikalerako komunikazioa.....	40
9.11. Manu Robles-Arangiz Fundazioak bultzaturiko trebakuntza, argitalpenak eta ikerketa.....	41
9.12. Nazioartean ahotsa, harremanak eta elkartasuna	42
10. Onarpen eskaera >>>	44



**LANGILERIA ANTOLATU,
GIZARTEA ERALDATU**
MÁS SINDICATO, MÁS VIDA

O. SARRERA >>>

Eskuetan duzun Kudeaketa Txosten honek 2021ean ospatu genuen 15. Kongresuan onartutako ponentzia eta ebazpenetan jasotako lau urteko programaren garapena eta bertan hautatutako Batzorde Eragileak egin duen kudeaketaren balantzea jaso nahi du.

Txosten honek, horrez gain, kongresu arteko epealdian bizi izan dugun testuingurua partekatu nahi du gure militantziarekin, baita denbora honetan atera ditugun ondorio nagusiak ere. Era berean, azaleratu zaizkigun erronka berrietako batzuk ere jasotzen ditu, dagoeneko 16. Kongresuko ponentzian landu eta finkatu direnak.

Lau urteotan lan handia egin dugu kontrabotereko sindikalismo autonomoarentzat konplexu izan den testuinguru batean, baina aurrerapauso garrantzitsuak eman ditugu langile klasearen interesak defendatzeko eta herritar xumeen bizi-baldintzak hobetzeko.

Bide hau egitea eta lorpen hauek gauzatzea ezinezkoa litzateke ELA osatzen dugun militante bakoitzaren ekarpenik, lanik eta pasiorik gabe. Egin dugunaren kontu ematea Batzorde Eragilearen ardura bada ere, hemen jasotzen den guztia proiektu militante hau posible egiten dugun guztion jarduera kolektiboaren emaitza da, zuzendaritza taldeak gidatuta.

Sindikatuaren indarra ez da soilik egindako lanaren ebaluazioan neurtzen, baizik eta etorkizunari begiratzeko gaitasunean ere. Kongresu arteko epealdi honetan, hainbat militante erretiroa hartu dute, sindikatuan urte luzez beraien ekarpena egin ondoren atseden hartzeko edo beste modu batera militatzen jarraitzeko momentua iritsi zaie. Haien lana eskertu nahi dugu: belaunaldi berrientzat antolatzen eta borrokatzen jarraitzeko ondarea bikaina utzi dute. Aldi berean, azken urteetan hil diren militanteak ere gogoan ditugu; haien militantzia eta konpromisoak gure borrokan bizirik jarraituko dute.

Baina sindikatuaren historia ez da soilik iraganeko ekarpenekin idazten, etorkizuna eraikitzen jarraitzen dugun guztion ahaleginarekin ere bai. Lau urte hauetan ELAra batu diren kide berriei ongi etorria eman nahi diegu; haien inplikazioak eta lanak gure borroka indartu eta etorkizuneko erronkei aurre egiteko tresnak sendotuko baititu. Belaunaldi ezberdinen arteko konpromisoari esker, sindikalismo autonomo eta borrokalari baten bidez, gizarte bidezkoa-go bat eraikitzen jarraituko dugu.

Horregatik, 16. Kongresua abagune garrantzitsua izango da egindako lana aitortzeko ez ezik, egindako lan honi jarraipena eman eta etorkizuneko erronkak kolektiboki heltzeko ere.



1. AURKAKO TESTUINGURU GERO ETA ZABALAGOA >>>

1.1. Munduko ordena berria: desberdintasun handiagoa, erronka klimatiko larriagoa eta politika erreakzionarioen gorakada

ELAk kezka bizi du mundu osoan gertatzen ari diren atzerapauso politiko, sozial eta ekologikoak eta beraiekin dakartzaten arriskuak. Hainbat herrialdetan erresistentziak eta garai-pen esperientziak badauden arren, joera nagusia sindikatuaren balioen eta ikuspegiaren aurkakoa da.

Egoerak larritasunaz jabetu eta mundu hobe eraikitzeko konpromiso militantea berritzea eskatzen du. Momentua bost faktorek nagusik definitzen dute: mugarik gabe hazten den kapitalismoaren mitoaren agortzeak, belizismoaren eta gerren gorakadak, desberdintasun sozioekonomikoen handitzeak, krisi klimatikoaren aurrean ekimen ezak eta eskuin muturren aitzineratzeak.

Krisi ekologikoa, gerren gorakada eta muturreko desberdintasuna eredu ekonomiko jasangaitz honen ondorioak dira. Eliteek gero eta aberastasun handiagoa pilatzen dute murrizketa eta abantaila fiskalen bidez, enplegua prekarizatuz eta gizarte-babeseko sistemak ahulduz.

AEBen eta Txinaren arteko lehiak definitzen du agenda globala eta lehia komertzial eta teknologikoa areagotzen ari da. Testuinguru horretan, eskuin muturreko indarrak mundu osoan aurrera egiten ari dira, eta, horren baitan, Trump boterera iritsi izanak Estatu Batuetako elite ekonomikoen interesen menpe jarri du politika. Horrek munduko ekonomian eta nazioarteko harremanetan arau eta paradigma berriak ezarri ditu, espansionismoaren mehatxua indartuz eta gerra ekonomiko, politiko eta kulturala larriagotuz.

Potentzia handien arteko lehia honek aliantzak eta gatazkak eragiten ditu Ekialde Ertainean, Afrikan eta Latinoamerikan, harreman neokolonialak betikotuz. Aurrekontu militarren igoerak erabat militarizatzen ari den mundu bat islatzen du. Hego Euskal Herrian ere arma-industriaren hazkundera kezkarria da. 2008tik sektore honetako enpresak 70 izatetik 206 izatera igaro dira.

Mendebaldeko herrialdeen laguntza eta konplizitatearekin egiten ari den Gazako herri palestinarren genozidioa krisi globalaren erakusgarri da. ELAk berehalako su-etena eta nazioarteko zigorrak eskatu ditu eta sarraskia gelditzeko eskatzen jarraitzen du. Era berean, irtenbide diplomatikoak eskatzen jarraitzen du Ukrainako gerran, AEBei eta NATOri mende egin baitie gasa eta armak salduz, inflazioa areagotuz eta Europako energia-merkatuak ezegonkortuz.

Diskurtso negazionistak hedatu diren ahala, COP27 eta COP28 bezalako nazioarteko foroek porrot egin dute krisiaren erantzule diren herrialde nagusiak egoeraz kargu egitera behartzerakoan. Krisi klimatikoak, ordea, larriagotzen jarraitzen du eta, potentzia handien menpe, herrialde pobretuek desertifikazioa, hondamendi klimatikoak eta esplotazioa jasaten ari dira.

Eskuin muturreko alderdiak gobernura iristea eta egungo testuinguru politikoa definitzen duen olatu erreakzionarioa milioika pertsonaren funtsezko eskubide eta oinarritzko eskubi-

de sozialen aurkako eraso da. Mozorro guztiak kendu dituen muturreko kapitalismoaren bertsio honek ez du korporazio handientzat kapital-metaketa handiagoa soilik bilatzen gizarte- eta lan-murrizketen bidez. Balio tradizional deiturikoen defentsa oinarri hartuta, genero-diskriminazioa iraunarazten duen, sexu-aniztasuna ukatzen duen eta pertsona migratuen aurkako gorroto-politikak elikatzen dituen gizarte-eredu bat inposatu nahi du. Bereziki, erreferenterik eta estrategia erreal eta eraginkorrik ez duen mundu osoko ezkerari dei egiten dion erasoaldia da.

ELA sinetsita dago beste mundu bat posible dela, eta sindikatuen arteko elkartasun eta internazionalismoarekin duen konpromisoa indartzen du, sindikatu, gizarte-mugimendu eta tokiko ekonomiekin lankidetzak sareak sustatuz, justizia sozialean, berdintasunean, herrien burujabetzan eta planetaren defentsan aurrera egiteko.

1.2. Europa neoliberal honetan eskuin muturrak eta belizismoak aurrera egiten dute

Politika neoliberalak eta inflazioak langile-klasea pobretu dute, izan ere, elikagaiek, energiak eta etxebizitzaren prezioek inoizko mailarik altuena izan baitute. ELAk prezioen kontrola eta zuzeneko laguntzak eskatu ditu, EBZren politikaren aurrean. Interes tipoen igoerak asko garestitu ditu diru asko behar duten oinarritzko ondasunak, modu berezian etxebizitza, alokairuen eta hipoteken igoerak eraginda.

EBk finantza-egonkortasuna eta korporazioen interesak ongizate sozialaren gainetik lehenetsi dituen testuinguruan, energia eta bankak moduko sektoreek etekin historikoak lortu dituzte. Arau fiskalak aldi baterako eten ondoren, murrizketa- eta austeritate-politikak inposatu ditu berriro ere, gastu-arau berriei inbertsio publikoa mugatuz.

2008ko krisiaz geroztik, gizartearen ondoez eta haserrea aprobetxatuz, eskuin muturra hazi egin da Europan. Ezkerrean ekimen ezak eta sozialdemokraziaren gainbeherak gorakada ekarri diote Italian, Frantzian, Alemanian, Herbehereetan eta Belgikan, eta indar sistemiko gisa finkatzen ari dira.

Hego Euskal Herrian, pisu instituzional txikiagoa duen arren, migratuen, emakumeen eta genero-disidenteen aurkako gorroto-diskurtsoak ugaritu egin dira. Antifaxismoak europar sindikalismoaren funtsezko printzipioa izan behar du. Gorrotoari aurre egitea eta justizia sozialean eta elkartasunean oinarrituriko alternatibak eraikitzeak lehentasuna izan behar du. Italian, Frantzian eta Grezian izandako greba eta protestek agerian uzten dute sindikalismoak faxismoari aurre egiteko borrokaren buru izan behar duela.

ELAk EBren migrazio-politika errepresiboa salatu du, "muga segurtasuna" aitzakiatzat hartuta giza eskubideak urratzen dituelako. Urtero, milaka pertsona hiltzen dira Mediterraneoan eta NBEren arabera migrazio biderik hilgarriena den Kanarietarako bide atlantikoan.

Ultraeskuinak klima-aldaketari buruzko diskurtso negazionistak bultzatzen dituen bitartean, enpresen interesek eta borondate politikorik ezak neurri eraginkorrak atzeratu dituzte, deskarbonizazio konpromisoak alde batera utzita.

Europar trantsizio energetikoa ez da soilik ingurumen-premia bat: eredu ekonomikoa iraunkortasunerantz eta gizarte inklusiorantz eraldatzeko aukera ere bada.

ELAk aurreko Kongresuan salatu zuen Next Generation EU funtsen etorrera baldintzatua zela, ez zirela inolako opariak, eta nazioz gaindiko enpresa handien proiektuak bultzatzeko asmatu zirela. Gertakariak, tamalez, arrazoia eman digute: pentsio- eta lan-erreformak Europako Funtsen onarpen markoan kokatzen dira.



Funts horien azterketa sakona egin dugu eta OMALein batera argitaratutako txostenak erakusten du Europar Batasunaren politikek, trantsizio ekologiko eta digitalaz moztarrotu arren, enpresa transnazionalen finantzaketa eta militarizazioa indartzen dituztela, gizarte-beharrak eta trantsizio ekosoziala alde batera utzita.

1.3. Espainiako gobernu hauskorra, Estatu berresten ari den testuinguruan

Sanchezen gobernu hiru erronka nagusiri aurre egiten ari da: ustelkeria salaketei, eskuinaren erasoari eta, 2023ko hauteskunde ostean, parlamentuan duen ahuleziari. Aurreko legealdiko gobernagarritasun blokea desagertu egin da: Unidas Podemos zatitu egin da, eta Junts edo EAJrekiko mendekotasuna erabakigarria da gehiengoak lortzeko.

ELA jakitun da eskuin eta eskuin muturreko gobernu batek langile-klasean eta gure herrian izango lukeen eraginaz, are gehiago Europako egungo testuinguruan. Hala ere, mehatxu horri aurre egiteko beharrezkoa da gizarte-politikak aldatzea, demokrazia defendatzea eta nazio-aniztasuna aitortzea, baita agenda erreakzionarioaren aurkako borroka kulturala ere.

Horregatik, ELAk behin eta berriz interpelatu eta kritikatu du Sanchezen gobernu lan-erreforma indargabetzeari uko egin izanagatik, mozal legea ezabatzeko konpromisorik ez izateagatik, Europako funtsei emandako babesagatik eta pentsioen erreforma areagotzeagatik (azken biak EAJk eta EH Bilduk babestuta).

Lan-erreforma indargabetzeko promesa ez betetzeak espainiar gobernuaren kontraesan handienetakoa suposatu du, Yolanda Díaz lan ministroarengandik hasita. Gainera, eginiko aldaketek porrot egin dute enplegu egonkorraren sorreran: aldizkako kontratu finkoen erabilerak estatistikak makillatu ditu benetako prekaritatea ezkutatzeko.

Espainiako gobernuak konbentzimenduz egin ez badu ere, negoziatzeko beharrak aurrerapen batzuk ahalbidetu ditu, hala nola hitzarmenen estatizazioaren amaiera.

ELAk Madrilen autogobernuari eta lan-baldintzei buruzko funtsezko gaiak defendatzeko eskatu die EAJri eta EH Bilduri. Hala ere, Espainiako gobernuak, oinarrizko legeen bidez, enplegu publikoari eta sektore publikoko soldata igoerei mugak ezartzen jarraitu du.

Alderdi positiboen artean, genero-legerian egindako aurrerapenak nabarmentzen dira, hala nola Trans Legea edo “soilik bai da bai” Legea.

Demokratizazio-agendan, Amnistiaren Legea mugarri izan da, nahiz eta eskuin judizial eta politikoaren erasoaldiak haren aplikazioa zaildu duen. Sanchezek berak publikoki aitortu zuen, euskal gizarteak ondo ezagutzen duen “lawfare” edo politikaren judizializazioa egon badagoela.

2025ean, indarrean jarraitzen du 78ko erregimenak eta sektore erreakzionarioek Estatuaren egiturak kontrolatzen dituzte. Koroaren irudia garbitzeko eragiketak edo Katalunian procès-a desaktibatze lanak berrindartzen ari den estatua islatzen dute.

Estatuaren egituren demokratizazioa eta Estatuaren nazio aniztasuna onartzea egiteke dauden zereginak dira, egungo gobernuak duen beharra eta eta jasotzen ari den erasoak kontuan izanik ere heldu ez dien zereginak.

1.4. Krisi politikoa Frantzian: neoliberalismoa, autoritarismoa eta eskuin muturraren gorakada

Emmanuel Macronen gobernuak aurrekaririk gabeko krisia bizi du. Europako hauteskundeetan eta hauteskunde legegileetan herritarren babesik ez izan arren, boterean jarraitzea erabaki du norabiderik aldatu gabe. Indar aurrerakoiekin hitz egin beharrean, eskuin tradizionaletik zentro-ezkerreko sektoreetara iristen den koalizio hauskor eta artifizial bat osatu du, ezker alternatiboa kanpoan utziz.

Exekutiboaren gaineko kontrola mantentzeko Macronek mekanismo instituzionalei heldu die, lehen ministroaren izendatzeko ahalmenaz baliatuz, Asanblea Nazionala deseginez eta epe politikoak bere interesen baitan maneiatuz. Neoliberalismoarekin eta babes sozialik ez duen pentsioen erreformarekin lerrokatuta dagoen François Bayrouren hautaketa, bere alderdia gutxiengoan dagoen Asanblean oreka hauskorrari eusteko saiakera berri bat da.

Bere estrategiaren helburua ezker eraldatzailea blokeatzea eta eztabaida demokratikoa gertuko dituen eragileetara mugatzea da. Eskuina erakartzeko migrazio- eta segurtasun-politikak gogortzen dituen bitartean, Lehen Ministroari legeak parlamentuaren onespenez gabe inposatzea ahalbidetzen duen 49.3 artikulua neurrizko erabilera eta zehaztapenik gabeko hauteskunde-erreformak agindu ditu. Berriki gertatu den Michel Barnierren gobernuaren erorketak statu quo-a iraunarazteko saiakera honen hauskortasuna agerian uzten du.

Kongresuko honetako ponentzian ohartarazten dugun moduan, Asanblea desegiteak eta, indar bozkatuena izan arren, ezkerreko koalizioa buru duen gobernu aurrerakoi bati betoa jartzeak ziurgabetasun handiagoan murgildu dute frantses Estatua.

Austeritateak, zerbitzu publikoen murrizketek eta desberdintasunen areagotzeak herritarren frustrazioa elikatu dute, eskuin muturraren gorakada bultzatuz. Rassemblement National beldurraz baliatu da segurtasunaren eta immigrazioaren aurkako diskurtsoa elikatzeko eta hauteskunde emaitza onak eman dizkion gobernagarritasun-irudia eraiki du. Frantziako oligarkiaren sektore batzuek emandako babes finantzario eta mediatikoak ere lagundu dio bere hedapenean.

Gainerako indarrak alternatiba sendo eta mobilizatzaile bat antolatzeko gai ez izateak herritarren ondoeza sakontzen jarraitzen du, atzerakada demokratiko larria ekar dezakeen egoera bati atea irekita utziz.



2. POLITIKA NEOLIBERALEK DARRAITE ETA ERANTZUN SINDIKAL ETA SOZIALA HANDITU DA EUSKAL HERRIAN >>>

2.1. Gasteiz eta Iruñeko gobernuak aldatu dira, baina politika neoliberalak jarraitzen dute

Azken lau urteetan, Gasteizko eta Iruñeko gobernuak beren orientazio neoliberalari eutsi diote, lan-errenten kaltetan enpresei mesede egiten dien zerga politikari jarraipena emanez eta jendartearen funtsezko beharrei erantzuteko nahikoak ez diren aurrekontuak onartuz.

Agerikoa da gobernuak botere ekonomikoekiko duten mendekotasuna. Elite enpresarialak, bankuak eta energia transnazionalak izan dira onuradun nagusiak. Irabazi historikoak izan dituzte.

Urkulluren eta Chiviteren gobernuen apustu neoliberalak gizartea pobretu du, osasun publikoa okertu, ez dute etxebizitza-politika sozialik garatu eta zaintza-sistema pribatizatu dute.

EAEn, 11 urtez elkarriketarik izan gabe egon ondoren, Lehendakari berria ELArenkin bildu zen. Hala ere, egiturazko arazoek bere horretan jarraitzen dute: zerga-politika bidegabea, aurrekontu mugatuak, etxebizitza edo zaintza politikarik eza eta sektore publikoko negozioa kolektiboaren blokeoa.

Osakidetzan, Pradalesen gobernuak mahai sektorialaren mahai paraleloa sortu zuen, osasun sistema publikoaren arazo larriei aurre egiteko aitzakiarekin. Mahai horretan Confebaskek edo PPz gain, EH Bildu eta LABek ere hartzen dute parte. ELA da parte hartzeari uko egin dion salbuespen bakarra. Hasieratik salatu genuen, eta denborak agerian utzi du, foro horren helburua ez zela osasun-sistema publikoaren egiturazko aldaketa bati ekitea, baizik eta denbora irabaztea eta protesta desaktibatzea. Adostasuna eta horren antzezpena edukien aurretik jartzea akats politiko eta sindikala dela pentsatzen jarraitzen dugu.

2025ean hamar urte beteko dira Nafarroan Barcinaren eta UPNren azken gobernuak amaitu zenetik. Baina zerga- eta aurrekontu-politikak ez dira aldatu funtsean. ELAk duela hamar urte zerga-politikari eta aurrekontu-politikari 180 graduko bira emateko planteatu zituen aldarrikapenak indarrean jarraitzen dute.

UPNren zerga-politikak indarrean jarraitzen du, baina horrek ez du kontraesanik sortzen gaur egun gobernatzen eta babesten duten alderdientzat. Nafarroan, zerga sistemak irabaziak dituzten enpresei mesede egiten jarraitzen du, langile klasearen gaineko zama handitzen duen bitartean, elkartasun eta progresibitate irizpiderik gabe.

Nafarroako Gobernuaren eta EH Bilduren artean hitzartutako aurrekontuek ez dute behar besteko hazkunderik izan behar sozialak erdigunean jartzeko. Osasun- eta hezkuntza-arloko

funtsezko eskaerak alde batera uzten jarraitzen dute, baita aldarrikapen feministak ere, hala nola zaintza-sistema publiko bat edo etxebizitza-politika bidezkoago bat sortzea.

2.2. Mobilizazio sindikal eta sozialak eraso neoliberalaren aurrean

Politika antisozialak gailendu eta pobretzea zabaltzen ari den testuinguruan, sindikatuen eta gizartearen erantzuna funtsezkoa izan da. ELAk mobilizazioaren eta antolaketaren garrantzia azpimarratu du, politikan eragiteko eta langile klasearen interesak erdigunean jartzeko funtsezko tresna moduan.

Kongresu arteko epe honetan, Euskal Herrian nabarmen egin du gora mobilizazioak, eta hau albiste bikaina da. Sindikalismoak, pentsiodunek, feminismoak eta gazte mugimenduek erakutsi dute mobilizatzeko eta agenda politiko eta sozialean eragiteko gaitasuna dutela.

ELA harro dago kontrabotere esparru horren parte izateaz. Kapitalaren eta patronalen ofentsibaren eta oinarritzko zerbitzu publikoak desagiteko ahaleginaren aurrean, Osakidetza kasu, greben eta protesten hazkundea erabakigarria izan da, aurrerago zehaztuko dugun moduan.

Nabarmenezkoa da, halaber, azken lau urteotan 21 emakume erail dituen egiturazko desberdintasun- eta indarkeria matxistaren aurrean mugimendu feministak agertu duen indarra. 2023ko azaroaren 30ean, ELAk bat egin zuen Hego Euskal Herrian deitutako Greba Feminista Orokorrearekin, eta zaintza sistema publikoa, doakoa eta kalitatezkoa eskatu genuen. Lantokietan jarraipen eraginkorra lortzea erronka da oraindik ere, baina hiri eta herrietako manifestazio masiboek agerian utzi zuten gizarteak aldarrikapen horiek babestu zituela.

2.3. Garaipen sindikal garrantzitsua etengabeko zentralizazio eta aurkakotasunaren erdian

Kontrako testuingurua nagusi izan arren, lorpen garrantzitsu bat nabarmendu nahi dugu: ELAk hainbat urtez gidaturiko borrokari esker, Espainiako Kongresuan Langileen Estatu-tua aldatzea lortu genuen. Aldaketa horrek lehentasuna ematen die Hego Euskal Herrian sinatutako hitzarmenei estatuko hitzarmenen gainetik. Mobilizazio sindikalak eragindako presioa funtsezkoa izan zen EAJk Espainiako Gobernuarekin zituen negoziazioetan gai hau lehenesteko. Lorpen horrek eragin bikoitza du: euskal langileen lan-baldintzak hobetzen ditu eta erakusten du borroka sindikala eta subiranista funtsezkoa dela aurrerapen politiko eta sozialak lortzeko.

Hala ere, lorpen honek bere arriskuak ere baditu. Batetik, Estatuan balizko gobernu-aldaketa batek izan lezakeen eraginagatik, eta, bestetik, patronalek lan-baldintzak prekarizatzeko dituzten estrategiek bere horretan jarraitzen dutelako. Horren adibide da ehungintzako eta ostalaritzako enpresa handiek EAEko sektore-hitzarmenak saihesteko estatu-hitzarmen espezifikoak sortzeko ahalegina. Taktika horiek agerian uzten dute beharrezkoa dela Euskal Herriko lan-baldintzak prekarizatzen dituen estatalizazioari aurre egiten jarraitzea.

2.4. Autogobernuaren higadura

2021ean Eusko Jaurlaritzak argitaraturiko "Higadura isila" liburuak agerian utzi zuen Espainiar Estatuak EAEren eskumenak ahuldu dituela oinarritzko legeen bidez, zeharkako eskumen-tituluak aipatuz, ustezko salbuespen arrazoien aitzakia pean Konstituzioan Estatuari erreserbatu gabeko funtzio betearazleak beretzat hartuz edo Konstituzio Auzitegiaren



esku-hartzearen bidez. ELA bat dator diagnostiko horrekin, eta 2025ean ere bere horretan jarraitzen duela berresten dugu.

Kongresu arteko epean, Gasteizko eta Iruñeko gobernuek ez dute aurrerapen nabarmenik egin autogobernuaren arloan. Urkullu lehendakariak gidatutako gobernuek marko juridiko berri bati buruzko eztabaida mugarik gabe atzeratu dute, beraien txostenaren ondorioak alde batera utzi dituzte eta Madrilekin betikotu egin dute egiteke dauden transferentziei buruzko eztabaida. Aurrekontu Egonkortasunari buruzko Legeak ezarritako mugek, Eusko Jaurilaritzak euskal funtzio publikoan lan-baldintza propioak ezartzeko irimotasunik ezak eta birjartze-tasen gaineko Estatuaren kontrolak benetako autogobernu falta agerian uzten dute. Hau honela izanik ere, euskal erakundeek Espainiar Estatuko erakundeekiko harremanek eta PSE-EErekiko aliantzek ez dute eraginik izan autogobernuaren higadura eman den hamarkada hauetan guztietan.

Eraso horiek eta autogobernuaren desagitea salatzeaz gain, ELAk sektore publikoko greba eta mobilizazioekin erantzun du, lan-baldintzak Madrilen erabakitzea salatuz. Hala ere, euskal erakundeek alde bikotasun faltsu bat defendatu dute Estatuarekiko, benetako alternatiba politiko bat zailduz.

2.5. Euskararen aurkako ofentsiba

Euskararen aurkako diskriminazioak autogobernurako eskumen-bermerik eza agerian uzten du. Kongresu arteko epean, EAEn hizkuntza politikan ekimen politikorik ez izateaz gain eta Nafarroan, zenbait gaitan atzera ere egiteaz aparte, administrazioan euskara eskakizunen aurkako ofentsiba judiziala pairatu dugu.

Euskara eskubidea urratu egiten da; izan ere, lanpostu guztietan gaztelania derrigorrezkoa den bitartean, euskara diskriminazio-arrazoi gisa tratatzen da, tratu berdina ukatzeko.

Epai hauen atzean euskararen aurkako ofentsiba bat dago, gaztelaniaren erabateko nagusitasuna bilatzen duten eta euskararen aurkako jarrera beligerantea hartzen duten sektore judizial, politiko eta sindikalek sustatua.

2.6. Estatus politiko berriari buruzko ezkutuko eztabaida

EAJk duela hilabete batzuk bilera sorta bat hasi zuen beste alderdi batzuekin autogobernu estatus berri bati buruzko akordio bat aztertzeko. ELAk elkarriketa horien opakutasuna eta gure herriaren etorkizunerako funtsezkoa den eztabaidan gizarte zibilaren bazterketa salatzen ditu.

Kezkagarria da gizarte zibila ordezkatzeko erakundeek, besteak beste ELAk, euskal belaunaldi batek edo gehiagok biziko duen marko juridikoa definituko duen eztabaidaren berri ez izatea. Era berean, kezkatzeko gaitu Eusko Legebiltzarreko gehiengo abertzale nabarmenak ez baliatzeak autogobernua eta nazio aitortza indartzeko aukera. Beldur gara bi indar abertzale nagusien estrategia PSE-EErekin adostasuna bilatzera bideratua ez ote dagoen, EAEko gehiengo sozial eta elektoralak eskatzen duenari erreparatu eta autogobernu maila handiago batera urrats erabakigarriak ematearen orde.

Nafarroan, egoera antzekoa da. Enplegu publikoari, birjartze-tasei eta arau fiskalei buruzko erabakiak Estatuaren inposizioek baldintzatzen dituzte, eta horrek larriki mugatzen du eskumen-autonomia. Estatuak sistematikoki errekurritu ditu aurreko legegintzaldietan Parlamentuan onartutako gizarte-legeak, baina Nafarroako gobernuek ez dute erantzun irmorik

eman. Foru Hobekuntzarako Legea berrikusteko proposamena egin arren, ez da aldaketa esanguratsurik bultzatu.

ELAk Hego Euskal Herrian autogobernuari buruzko eztabaida baldintzatzen duten hiru faktore antzematen ditu:

- a) Etengabeko zentralizazioa: Estatuak funtsezko arloen gaineko kontrola mantentzen du, hala nola aurrekontuak, funtzio publikoa eta lan-araudia, gutxieneko soldatan eta lanaldian bere irizpideak inposatuz.
- b) Zentralizazioaren normalizazioa: Hego Euskal Herriko erakundeek errealitate hori onartu dute, gizartearen erantzuna desmobilizatuz.
- c) Estrategia subiranistatik eza: Ez dago benetako agenda subiranista bultzatzeko eragile politiko, sozial eta sindikalen arteko koordinazio eraginkorrik.

2.7. Ezkerrak oposizioa egin eta programa alternatiboa eraikitzeari uko

Azken lau urteotan, EH Bilduk oposizio politiko gisa jarduteari eta proiektu alternatibo bat defendatzeari uko egin dio.

EH Bilduk babestutako zenbait akordio norabide estrategiko horren adierazgarri dira:

- a) Bizkaiko eta Arabako Foru Aldundietan 2025erako aurrekontu neoliberalak onartzea, 2023rako Eusko Jaurlaritzaren aurrekontuei eskainitako babesaren edo 2025erako osasun publikoa edo fiskalitatea bezalako funtsezko gaiak aurrekontuen negoziatzeetatik kanpo uzteko akordioa; hamarkadako murrizketak iraultzeko eta inbertsio publikoa nabarmen handitzeko premia, edo fiskalitate justu eta progresiboa ezartzeko beharra alde batera utziz.
- b) Nahiz eta urteak eraman bere buruari aurrerakoi deritzon gobernuaren babesten, UPNren oinarri diren eta oso hobekuntza eskasak dituzten Nafarroako zerga- eta aurrekontu-ereduen onarpena.
- c) Eduki eraldatzaile gabeko edo sinbolikoak diren akordioak, hala nola, Trantsizio Energetikoaren Legea; Eusko Legebiltzarrean Lanbide arteko Gutxieneko Soldatari buruzko adierazpena, erantzukizuna gobernu-alderdiei helarazi beharrean sindikatuen gain utziz; edo hezkuntza-akordioa, egungo sare-sistema, segregazioa, hezkuntza-sistemaren merkantilizazioa eta Estatuak edukiak ezartzea betikotuz.

ELA ez dator bat estrategia horrekin eta asko kezkatzen gaitu politika antisozialak sendotzen dituzten kontsentsuek ezkerreko desitxuratuak.

Sistemaren normalizazio horren ondorioen artean, honako hauek nabarmentzen ditugu:

- a) Eredu neoliberalaren asimilazioa. Politika horiei aurre ez egiteak eta adostasunei balio emateak, aditzera ematen du egoera ez dela hain txarra. EH Bildu jada ez zaio EAJri zuzentzen euskal eskuina bezala, nahiz eta azken hau izan zerga sistema bidegabekoa diseinatu duena, azpikontratan sarea sortu duena, sektore publikoa desegin eta privatizatu duena, Osakidetza barne, edo zaintza sisteman prekaritatea bultzatu duena.
- b) Benetako alternatiba politiko bat desagertzea, nagusi den ereduaren ezbaian jartzen duten politiken aukera alde batera utziz. Eszenatoki horretan, akordioak posible izateko



ezkerra bere exigentziak malgutu beharrean aurkitzen da eskuinaren aurrean, sekula ez alderantziz.

- c) Akordioen irakurketa onberak, egungo ereduak eraldatzen ez dituzten heinean bidegabekeriak erreproduzitzen dituela ezkutatzuz, hala nola, aberastasunaren banaketa desberdintasunak, lan-prekaritatea, zerbitzu publikoen narriadura, krisi ekologikoa edo etxebizitza eskuratzeko zailtasunak.
- d) Gizartearen desmobilizazioa. Funtsezko edukirik gabeko adostasun zabalak bilatzeak gatazka soziala neutralizatzen du eta eragile sozialen interpelazioei entzungor egiten zaie, gogaikarri sentitzeraino. ELAren eta LABen arteko aliantza sindikala indartzeko interes faltak, neurri batean, estrategia horri erantzuten diola uste dugu.

2.8. Ipar Euskal Herriaren etorkizuna eraikitzen: estrategia, elkartasuna eta ekintza soziala

Ipar Euskal Herrian, Manu Robles-Arangiz Fundazioak bere hausnarketa estrategikoa azterketa eta eztabaida militanterako gunea den Gogoeta taldean garatzen du. Egoera politikoa, mugimendu abertzalearen eztabaidak eta erronka nagusiak aztertzen dira bertan. Azken urteotan talde hau hazi egin da, 80 kide izatera iritsi arte, gazteak eta emakumeak sartzeari lehentasuna emanez.

Hartu dituen erabaki estrategikoen artean, nabarmentzekoa da Eraiki Funtza sortzea, Fundazioaren ekosistemako espazioak eta baliabideak bermatu eta garatzeko. Eraikiren bidez, funtsezko bi proiektu bultzatu dira:

- a) Patxoki Berria: Fundazioaren egoitza berria izateaz gain, bestelako funtzio eta erabilerak barnebilduko ditu: etxebizitza soziala, taberna eta jatetxe herrikoia, objektuak berrerabili eta konpontzeko gunea, 20 plazako ostatua, bulegoak eta 180 lagunentzako hitzaldi-aretoa. Gaur egun Cordeliers, Enbata eta Patxokin sakabanatuta dauden jarduera eta baliabideak bilduz eta eraginkortasuna eta sinergiak hobetuko ditu.
- b) Beskoitzeko Robles-Arangiz etxea, ELAren militante historikoaren familiak utzia eta militanteak trebatu eta baliabideak sortzeko gune bihurtuko dena, kultura-ekitaldiak hartzeaz gain.

Fundazioak Enbata aldizkaria biziberritzen lagundu du, erredakzio-taldea berrituz, papezko edizio eta digitala hobetuz (enbata.info), harpidetzak zabalduz eta Ipar Euskal Herriko abertzaletasunarentzat erreferentzia den aldizkari politiko honen indartzuz.

2020an, ELAren 15. Kongresua baino lehentxeago, ELAk eta Manu Robles-Arangiz Fundazioak Aldaren sorrera bultzatu zuten. Aldak 1.000 kide baino gehiago ditu gaur egun, eta funtsezko aktore gisa sendotu da Ipar Euskal Herrian, batez ere etxebizitzaren aldeko borrokan, etxebizitza sozialeko maizterren ordezkarien hauteskundeak gehiengo handiz irabaziz.

Aldak, beste erakunde batzuekin aliantzan, garaipen garrantzitsuak lortu ditu:

- a) Kanpaina handi baten ondoren turismo-etxebizitzak mugatzen dituen Konpentsazio-araudia onartzea gune-tentsionatu izendaturiko 24 udalerritan.
- b) 2024ko azaroan alokairu pribatuak mugatzeko mekanismo bat aktibatzea gune berberetan.

Gainera, Aldak bizilagunen sei talde antolatu ditu Baionan, Angelun eta Bidarten, herri auzoetan hobekuntzak lortuz. Lau urtean 1.833 pertsona eta familiari laguntza eskaini die eta eskaria gero eta handiagoa da.

Aldaren sorrera eta hazkundeak ez du beste proiekturik ahuldu; izan ere, Bizi! taldeko kide batzuk Aldan murgildu diren arren, klima-mugimendua %20 hazi da, eta 2020an 678 kide izatetik 2024an 808 izatera igaro da.

Urte hauetan, Fundazioak Ipar Euskal Herriko erakundeek ekosistema indartu du. Enargia elektrizitate-banaketa kooperatibaren Administrazio Kontseiluko kidea da eta 2023-24ko barne-krisian, esku hartu zuen bere jarraipena bermatu eta I-Enerrekin zuen aliantza mantentzeko, Ipar Euskal Herrian gertuko energia-zirkuitu bat gara dadin.

Baiona-Angelu-Biarritz eremuan objektuak berrerabili eta konpontzeko gune bakarra den Konpon-Txoko proiektua ere babestu du, bideragarritasun-planean parte hartuz eta desgertzea eragotziz.

Gainera, Fundazioak, Ipar Euskal Herriko mugimendu abertzaleak gidatutako Bagira prozesuan parte hartu du, prestakuntza antolatuz, Aberri Egunean lagunduz eta 2024ko apirilean aurkeztutako bide-orria egiten ere lagunduz. Egun bide-orriaren jarraipen taldean ere parte-hartzen du.

Bestalde, ETaren armagabetzearen ondoren, Bake Bideak eta Bakegileek espetxe-politika aldatzea izan dute ardatz. Bereziki esanguratsua izan zen 2022ko uztailaren 23ko blokeo-eguna, euskal presoek egoeran aurrerapausoak eman eta Jon Parot eta Jakes Eñal aske uzteko aldarriaren baitan Ipar Euskal Herria geldiarazi zuena.

Luhusoko operazioarekin loturiko 2024ko epaiketa Béatrice Molle-Haran eta, Txetx Etcheverry ELaren Fundazioko eta Nazio-Batzordeko kidearen zigor-salbuespenarekin amaitu zen. 2024ko abenduaren 16an, Bakegileek prentsaurrekoa eman zuten Eusko Jaurlaritzak Gogora Institutuan erregistratutako kontakizun ofiziala gezurtatzeko eta ETaren armagabetzearen azken fasearen kontakizuna osatzeko.

Egindako bideari esker, ziklo baten amaiera egiazta daiteke, Frantziako espetxeak euskal presoek hustu direlarik. Orain erronka Baionako Adierazpena ahalik eta modu zabal eta partekatuenean aplikatzea da, Euskal Herriko gatazka politikoaren konponbidean aurrera egiteko.



3. BIDEZKO GIZARTE EREDU BATEN ALDE BORROKAN >>>

3.1. Borroka sozialari bultzada behar sozialak handitzen ari direnean

Azken Kongresutik hona, urrats garrantzitsuak egin ditugu eredu sozial alternatibo baten aldeko konpromisoa sendotzeko. Helburua trantsizio sozial, ekologiko, demokratiko, antirrazista eta feminista baterantz egitea izan da, eta gure lanaren zati handi bat bide horretara bideratu dugu.

Azken Kongresuan, lan- eta pentsio-erreformen aurkako mobilizazioa indartzeko deia egin genuen, Greba Orokorren aukera irekita utziz. Hala ere, ponentzian azaldutako aliantzak eraikitzeko zailtasunek ezinezko bihurtu zuten ELAren proposamena gauzatzea.

Nahiz eta dinamika indartsuago bat ezinezkoa izan, gure mobilizazio propioak bultzatu genituen. 2023ko apirilaren 4an kalera atera ginen pentsioen erreformaren bigarren fasearen aurka, eta alderdi politikoei erreforma baztertzeari eskatu genien.

Hala ere, Pedro Sánchez boterera eraman zuten alderdi politikoei—EAJ, EH Bildu eta Elkarrekin-Podemos barne—, 2011ko murrizketak ez indargabetzeaz gain, murrizketa gehiago onartu zituzten.

3.2. Elkarlana eta mobilizazio soziala aberastasunaren birbanaketa bidezkoago bat lortzeko

Izan beharrezko rola eta eman beharreko erantzunen inguruko desadostasunak gorabehera, ELAk parte hartze aktiboa izan du Hego Euskal Herriko Eskubide Sozialen Kartan. Bertan, hainbat prozesu garatu dira aliantzak eta gizarte-erakundeen partaidetza indartzeko, hala nola Birkokapen Prozesua, 2022ko bizimoduaren garestitzea salatzen kanpaina eta 2023ko Su Txikien Itsasoa.

Kartaren bidez hainbat mobilizazio antolatu ditugu:

- a) 2022ko azaroaren 19an, Hego Euskal Herriko lau hiriburuetan mobilizatu ginen, gehiengo soziala pairatzen ari den pobretzeari aurre egiteko politikak eskatzeko.
- b) 2024ko maiatzean, Bilbon eta Iruñean, Bidezko Trantsizio Ekosoziala aldarrikatu genuen.

Ekimen hauek positiboki baloratzen ditugu, nahiz eta Karta Sozialak potentzial handiagoa izan dezakeela uste dugun. ELA eta LABek hainbat erabakiren inguruan ditugun irakurketa desberdinek eta eman beharreko erantzunen inguruko desadostasunek, ordea, indarra mugatzen dute. Guk erabakiak nork hartzen dituen baino edukiari begiratu diogu. LAB, aldiz, EH Bilduk babesturiko erabaki edo akordioa izan diren heinean, kritika eta mobilizazioa apaldu edo ekiditen saiatu da. Honek, gure kabuz, gure irizpide propioen baitan, kritikak, ekimenak eta mobilizazioak antolatzea eraman gaitu, gure irizpide eta edukiekin ados zeudenekin elkarlana bilatuz.

Zerga politika ELAk azken lau urteetan landu duen ardatz nagusietako bat izan da. Pandemiaren hasieran, sektore askok enpresen irabaziei, ondare handiei eta errenta altuei zergak igotzea defendatu zuten, gastu publikoaren finantzaketan ekarpen bidezkoagoa bermatzeko.

Haatik, EAEko eta Nafarroako erakundeek neurri horiek saihestu dituzte, eta kontrara ere egin dute kasu batzuetan. Esaterako, EAEn ezarri den Fortuna Handien gaineko Zerga Espainiako Estatukoa baino apalagoa da zergadun aberatsentzat. Horregatik, ELAk zerga politikari buruzko bere analisia eta proposamenak berretsi ditu, eta mobilizazioak ere antolatu ditu, hala nola 2024ko abenduaren 13 eta 14ko protestak.

Kongresu arteko epe honetan, ere, krisi ekologikoari aurre egin eta trantsizio ekosoziala bultzatzeko proposamen oso bat plazaratu dugu, gure gizarte eredua, ekonomia, ekoizpen sistema eta politika publikoak sakon aldatzeko beharra azaleratzen duen proposamena.

Trantsizio ekosozialean sindikatu bezala egin dezakegun ekarpen nagusia aldarri hauek lantokietara eramatea dela sinetsita, 400 atal sindikalekin trantsizio ekosoziala eguneroko jardunean txertatzeko eta negoziazio kolektiboan bost proposamen zehatz barnerako lan-plan berezia egin dugu.



4. LORPEN HANDIKO NEGOZIAZIO KOLEKTIBOA >>>

4.1. Azken urteetako estaldurarik handiena

Kudeaketa txosten hau azken bi hamarkadetan Hego Euskal Herriko langileek lan-hitzarmenen estaldura handiena duten momentuan aurkezten dugu. Estaldura mailaz gain, hitzarmen hauek inguruko lurraldeetakoak baino eduki hobeak dituzte, eta hori posible izan da datu ofizialetan inoiz jaso den greba maila altuena garatu dugulako kongresu arteko epe honetan.

Greba eta negoziazio dinamikari esker, hitzarmen gehienak eguneratu dira. Sinatu gabe dauden salbuespenen artean aipagarriak dira, sektore publikoa bere osotasunean, EAEko herrialde guztietako bulegoetako langileena, Araba eta Nafarroako adinekoren egoitzetako hitzarmenak, Nafarroako ehungintzako edo Bizkaiko eta Arabako ostalaritzako hitzarmenak. Hitzarmen hauek salbu, beste sektore nagusietan lan hitzarmenak eguneratu egin dira epe honetan.

4.2. ELAk sinatutako hitzarmenak: baldintza onenen bermea

ELAk sinatutako hitzarmenek beste sindikatuak sinatutakoak baino baldintza hobeak bermatzen dituzte. 2023an, ELAk sinatutako hitzarmenetan batez besteko soldata igoera %5,76koa izan zen, ELAk sinatu ez zituen hitzarmenetan, aldiz %4,17koa. 2024an ELAk sinatutakoa hitzarmenetan igoera gainerako sindikatuak sinaturikoetan baina 0,3 puntu handiagoa izan zen.

Txosten ofizialetan datuak ez dira generoaren arabera bereizten, baina gure datuen arabera, ELAk sinaturiko hitzarmenetan emakumeen batez besteko soldata igoera %6,75koa izan zen.

Soldata igoeraz gain, balioan jarri behar dugu azken urteetan lortu ditugun lanaldi murritzeta esanguratsuak. Izan ere, sindikatuarentzat elementu zentrala da enplegua banatzeko, enpleguak gure bizitzetan duen pisua murrizteko, denbora librea izateko, bizitzaren erreproduktzioarako funtsezkoak diren jarduera egiteko eta pertsonen zaintzak erdigunean jartzeko.

Gizonek emakumeek baino estaldura handiagoa

Lan Harremanen Kontseiluaren azken datuaren arabera, emakumeek gizonek baino hitzarmen eguneratu gutxiago dituzte. 2023ko abenduan, gizonen %68,11k hitzarmena eguneratua bazuen, emakumeen kasuan %58,22k baino ez. Emakumeak nagusi diren sektoreetan langileen dispersioa handiagoa da, langileak antolatzea eta grebak egitea zailagoa, eta patronalek baldintzak hobetzeko betoa errazago ezartzen dute. Gainera, gobernuek gutxieneko zerbitzu zorrotzak inposatzen dituzte, presio-gaitasuna mugatuz. Sektore feminizatuetan presio-gaitasuna handitzea izango da erronka nagusia.

ELAk greben egunen %80 deitu ditu

Balio handia eman behar diogu gure lurraldeetan eredu sindikal desberdina eraiki izanari eta horren protagonista nagusia ELA izateari. Kudeaketa Txosten hau idaztean jasotako azken

datu ofizialen arabera, 2023an deitutako greben %70,50ean ELA izan zen deitzaile eta greba-egunen %80,54 ELAk antolatu zituen EAEn (Nafarroan ez dago datu ofizialik). Hurbilen dagoen sindikatua LAB da, baina alde nabarmena dago: LABek greben %29,50 deitu zuen eta greba-egunen %11,36 antolatu. UGT eta CCOOren datuak ere ELAren zenbakietatik oso urrun daude.

ELAren sinadura hitzarmenen kalitatearen bermea izan da. ELAk hitzarmen bat sinatu ez duenean ere, bere eragina nabarmena izan da, patronalak baldintza hobeak proposatzera behartu baititu. ELAk greba egiteko duen gaitasunak beste sindikatuak ere grebara eramatea eta hitzarmen horien edukiak hobetzea ekarri du. ELA presente dagoenean, negoziazio kolektiboa indartzen da eta baldintza hobeak bermatzen dira.

4.3. Gobernuen blokeoa eta langile publikoen borroka

Administrazio publikoetan lan-akordioak beste behin ere ez dira berritu. Gobernuak patronalik autoritarioenak dira. Sarritan, langile publikoen lan-baldintzak aurrekontu legeen bidez ezagutu ditugu, benetako negoziatorik gabe. Jarrera hori errepikatzen dute azpikontratutako zerbitzuetan ere. Zerbitzu hauetan grebak sektore pribatuan baino urriagoak izan arren, luzaroago iraun behar dute akordioak lortzeko.

Hala ere, grebek gobernuen jarrera aldatzea eragin dute. EAJk, PSOErekin Espainiako Gobernua osatzeko akordioan, Hego Euskal Herrian langile publikoen soldata igoera eta erreposizio tasa propioak ezartzeko aukera hitzartu du. Nahiz eta oraindik ez den gauzatu, 2023-2024an EAEko langile publikoek egindako hiru grebek EAJ behartu dute langileen lan-baldintzak Espainiako Gobernuarekin dituen negoziazioetan kokatzera.

Nafarroan 2025eko udaberrira arte ez da posible izan sektore publiko osoan greba dinamika bateratua eraikitzea. Izan ere, LABek, Nafarroako sektore publikoan gehiengoa duen sindikatuak, denbora luzez uko egin dio greba deialdiak egiteari eta greba dinamika egon zitezkeen sektoreetan sasiakordioak itxi dituelako mobilizazioak bertan behera uzteko, Osasunbidean kasu. Hala ere, 2024 amaieratik hainbat sektoretan blokeo hori gainditzea lortu genuen, eta greba eta mobilizazio dinamika berri bat abiatu hezkuntza publikoan, ogasunean, baita Osasunbidean ere. Eta azkenik lortu genuen Nafarroako sektore publiko osoan greba deialdia egitea.

4.4. Euskal Herria, lan-baldintzak hobetzeko borrokaren erreferente

Aurrez azaldu ditugun datuek Euskal Herria salbuespen sindikal bihurtzen dute. Nabaria da aldea, greba dinamikan, soldata igoeretan, lanaldi murrizketan, genero arrakala murrizteko akordioetan edo prekaritatea mugatzeko neurrietan. Hala ere, badira beste bereizgarri batzuk ere. ELAk sinatutako hitzarmen sektorial guztiek Rajoyren 2012ko lan-erreformaren aurkako neurriak barne hartzen dituzte, hala nola hitzarmenen aplikazioa bermatzeko klausulak eta enpresek hitzarmenak alde bakarrez inaplikatzeko aukera mugatzeko neurriak.

Egindakoak betetzen gaituen arren, BPGaren hazkundeak batez ere kapital errentak elikatu ditu. Enplegu sorrera eta soldata igoerak ez dira nahikoak izan aberastasuna justuago banatzeko, lan-errentek kapital-errenten aldean galdu baitute. Pobretze honek negoziazio kolektiboaren logika gainditzen du, hein handi batean oinarrizko zerbitzu eta produktuen garestitzea eman delako, sortutako enplegua sektore prekarioetan gertatu delako edo kalitatezko enplegua suntsitu delako, baina edozein kasutan, negoziazio kolektibo zorrotzago eta anbiziotsuagoa egitea eskatzen digu.



Eta, era berean, inflazio altuko testuinguru batean erosahalmena mantentzea erronka handia izan da. Barne Produktu Gordinaren hazkundeak KPItik gorako soldata igoera nabarmen handiagoak eskatzen zituen, baina gehiegitan KPIko igoera soilak nahikoa izan da guretzat. Ez gara gai izan langileen imajinarioan KPItik gorako soldata igoeren beharra sortzeko.

Badakigu oraindik ez ditugula lortu sektore guztietan nahiko genituzkeen emaitzak, eta, beraz, gure eragina hobetu behar dugu, eta eremu horietan antolaketa eta konfrontazio-gaitasuna indartu.

Hala ere, ELAko kide garenok harro gaude negoziazio kolektiboan egindako lanaz, eta sine-tsita gaude egindako lanak balio handia duela, batez ere beste lurralde batzuetako dinamikekin alderatuz gero.

4.5. Genero-ekitatean ere aurrera negoziazio kolektiboan

Azken lau urteetan, lan-baldintzak aztertzeko eta negoziazio kolektibo parekide bat garatzeko tresnak berritu ditugu, hala nola prekaritate mapa eta lantokien diagnostiko ereduak. Informazioa modu desagregatuan jasotzea ezinbestekoa da lantokien egoera aztertzeko eta aldarrikapenak egoki zehazteko.

Horrez gain, hainbat sektore eta enpresatan plan pilotuak garatu ditugu negoziazio kolektiboak emakumeek jasaten dituzten diskriminazioei eta haien beharrei lehentasuna emanez prestatzeko. Helburua hitzarmenen prestaketa prozesua berreraikitzea da, emakumeen parte-hartzea bermatzeko, beren iritzia jasotzeko, boteretzeko eta gure aldarrikapenetan emakumeen beharrei lehentasuna emateko.

Aldarrikapenetan genero ikuspegia lehenetsi ezean, eta langile guztiei berdin eragiten dieten aldarrikapenak soilik kontuan hartuko bagenitu, gaur egun gizon eta emakumeek bizi dituzten desberdintasunak erreproduzitzeko genituzke. Plan pilotuei esker, prozesu horiek ekitatearen alde eraginkorrago bihurtu ditugu. Hurrengo urteetan, ikasitakoa orokortzea izango da gure erronka nagusia.

5. INDAR ETA ZILEGITASUN SENDOA, 9.500 ORDEZKARI ETA 104.000 AFILIATU BAINO GEHIAGOREKIN >>>

5.1. Euskal Herriko sindikatu nagusia: datuek babestutako hegemonia

ELA da Euskal Herriko sindikatu nagusia, eta %35,79ko ordezkartza du Hego Euskal Herrian. EAEn, %40tik gorako ordezkartza dugu (%40,47 2024ko abenduan), eta Nafarroan %23tik oso gertu gaude (%22,77 2024ko abenduan), 1.600 ordezkari baino gehiagorekin eta, ondorioz, "ordezkartza handieneko sindikatu" gisa sendotua.

Hego Euskal Herrian, 9.568 ordezkari ordezkatzeko ELA beren lantokietan. ELAren gehiengo sindikal zabala da nabariagoa da EAEn duen ordezkartza konparatzean: ELAk 7.962 ordezkari ditu, LABek eta CCOOek batera baino gehiago, 3.975 eta 3.507 ordezkariekin, hurrenez hurren.

Hauteskunde sindikaleko emaitza hau bakarra da Europan. Lehian lau sindikatu nagusi dituen sindikalismo anitzeko sistema batean, Europan ez dago gainerakoekiko hain alde handia mantentzen duen beste sindikaturik. Zer esanik ez sindikatu nagusia kontrabotereko sindikalismo soziopolitikoan kokatzen denean.

ELAren ustez, hau harro egoteko arrazoia da, sindikatuaren zilegitasun nagusia euskal langileak hauteskunde sindikal bakoitzean ematen digun babesetik baitator. Konfiantza eta errekonozimendu hori gure estrategia sindikalaren, ereduaren eta gure militantziak lantoki bakoitzean eta sektore bakoitzean garatzen duen konpromisoaren eta lanaren egokitasunaren isla dira.

5.2. Afiliazio handiagoa, parekideagoa eta anitzagoa

Azken kongresutik, 3.000 afiliatu gehiago ditugu eta 104.000ko langa gaitu dugu. Emakumeen afiliazioa jada %47,6koa da (49.548 afiliatu), eta ehuneko 4 puntuko hazkundera izan du azken lau urteetan. Joera horren arabera, afiliazioa parekidea izango da urte gutxiren buruan.

Migraturiko pertsonen dagokienez, duela 4 urte 5.037 afiliatu zeuden sindikatuaren, eta 2024ko abenduan 7.474ra iritsi ginen. Afiliazio emaitza garbiaren %80 migraturiko pertsonak dira.

Gazteei dagokienez, datuak positiboak dira, eta 29 urtetik beherakoen afiliazioa ia %10 hazi da. Hala ere, adin tarte honetako pertsonengana gehiago hurbiltzeko lan sindikalean sakontzeko aukera dugula uste dugu.

Era berean, sindikatuko zerbitzu juridikoek afiliazio-dinamikari egiten dioten ekarpena azpimarratu nahi dugu. Izan ere, zerbitzu juridikoa eta bere kalitatea alta-iturri nabarmena da eta eragin garrantzitsua du afiliazio-emaitzan.



Sindikatu osoan afiliazioari ematen diogun arreta hobetu dugu. Horretarako, egoitzetako arreta eta permanentziak berrantolatu ditugu; ELAren lokaletan lehen harrera egiten dutenentzat berariazko prestakuntza garatu dugu, eta federazioen eta zerbitzu juridikoen esku-hartze zuzenik behar ez duten kontsultei erantzuteko pertsonak izendatu ditugu. Horri esker, arlo horietako arreta arindu eta lan-karga optimizatu ahal izan dugu. Aurrerapen horietako asko lantokitik harago ardurak hartu dituzten militanteen konpromisoari esker izan dira posible. Beraien lana eta ekarpena aitortu nahi dugu. Hala ere, afiliatuei ematen zaien arreta hobetzea oraindik sakondu eta garatu behar dugun erronka da, kongresu honetako txostenak jasotzen duen moduan.

Azkenik, baja jakin batzuk berreskuratzeko azken bi urteetan abian jarritako dinamika nabarmendu nahi dugu. Horrekin, afiliatuekin harremana sendotzearekin batera, hainbat arrazoiengatik afiliatuta egoteari utziko liokeen pertsona askok sindikatuan jarraitu ahal izan dute.

6. ERAGINKORTASUNA AREAGOTZEKO ANTOLAKUNTZA PROZESU GARRANTZITSUAK ABIAN >>>

Sindikatuaren funtzionamendua hobetzeko eta eraginkortasuna areagotzeko gure tresna nagusia antolakuntza da. Antolakuntza zereginen barruan hainbat alderdi barnebiltzen ditugu: egiturako kideen eta, oro har, militantziaren antolaketa eta zaintza, bizitza organikoa, gure oinarri sindikala sendotzeko etengabeko hobekuntzen sustapena, lan-moduak hobetzeko planifikazioa edo beharrezko tresnak eskaintzea, besteak beste.

Beraz antolakuntzarekin zerikusia duten gauza ezberdinak zeharka jotzen dute beste hainbat prozesu eta esparrutan eta Kudeaketa Txosten honetan ere antolakuntzaren garapena atal ezberdinetan azaltzen dugu. Hala ere, berariaz aipatu nahi ditugu garrantzitsuak iruditzen zaizkigun hainbat gauza.

Honekin batera, garrantzitsua deritzogu kontuan izatea antolakuntzaren arloko lan-ildoak eta helburuak ez direla soilik lau urterako, baizik eta begirada luzekoak direla eta etengabeko garapena eskatzen dutela.

Halaber, antolakuntzaren berrikuntza nagusiak aurreko Kongresuan estrategikotzat definitutako lan-ildoetatik eratorri dira:

- a) Planifikazioa eta sindikatuaren Kudeaketa Sistema.
- b) Genero Ekitaterako Plan Estrategikoa.
- c) Sindikalizazioa.

Kudeaketa txosten honetan, ildo estrategikoen garapena azaltzen den atalean, ardatz horiek azken lau urteetan izan duten bilakaera xehetasun handiagoz jorratzen dugu.

Sindikatu sendo bat izateko eta lan-munduaren erronkei aurre egiteko, gure antolakuntza egokitzen eta eraginkortasuna hobetzen jarraitu dugu. Egitura zabal eta sendo baten aldeko apustuari eutsi diogu, ordezkariak eta militantzia osoa aktibatzeke eta kongresu honetako ponentzian jasotako helburuak lortzeko gaitasuna izan dezan.

Egitura hori sendo eta kohesionatutako mantentzeak antolakuntza-esfortzu handia eskatzen du. Ahalegin handia egin dugu horretan, eta denbora asko eskaini diogu.

6.1. Antolakuntza eredu sendo eta eraginkorra garatzeko urratsak

Generoari eta adinari lotutako berrikuntzei jarraipena eman diegu. Sindikatu aniztasun handiko eta profil ezberdinetako arduradunak sartu dira; batzuk lan zentroetako militantzietatik datoz, eta beste batzuek militantzia beste esparru batzuetan garatu dute. Aniztasun horri balio handia ematen diogu. Esperientzia sindikal gutxiagorekin sartu diren arduradunek aurrera egiteko, funtsezkoa izan da eskarmentu handiagoa duten lankide eta ordezkarien laguntza eta ekarpena. Laguntza-prozesu hori gure kulturaren parte da, eta izugarritzko balio eta garrantzia du.



Eskualde eta federazio mailako lan-ekipoak ahalik eta eraginkorrenak izan daitezen saiatu gara, ardura eta profilen arteko oreka egokia bermatuz, betiere ekintza sindikala eta soziala baldintza onenetan bultzatzeko.

Helburu hori lortzeko, beharrezkoak izan diren funtzio-aldaketak egin ditugu arduradun ezberdinen artean. Gure antolakuntza-ereduaren eta kulturaren ezinbesteko ezaugarria da, eta egiturako kide eta gainerako militanteen eskuzabaltasunari esker gauzatu daiteke. Hau gabe, sindikatuak dituen erronka nagusiei eta unean-uneko beharrei behar bezala erantzutea ezinezkoa litzateke.

Bajek sortutako hutsuneak betetzeko eta etenak edo lan-karga gehigarria saihesteko, esfortzu berezia egin dugu. Horretarako, bajak betetzeko plangintza diseinatu eta hainbat ordezkari liberatu ditugu denbora batez beharrian horiei erantzuteko. Sindikatuaren jarduerak etenik ez izatea eta gainerako kideen gainkargak saihestea bermatzen du honek. Eskerrik beroenak aldi baterako ardura hauek hartu dituzten edo hartzen ari diren ordezkari.

6.2. Elkar zaindu eta babesteko neurriak

Egiturako arduradunen zein gainerako militanteen osasuna eta ongizatea zaintzea helburu garrantzitsua izan da kongresu arteko epe honetan, eta hala izaten jarraituko du hurrengoan ere. ELAn Arrisku Psikosozialei aurre egiteko Plangintzak hainbat lan-ildo jasotzen ditu, urtero egokitzen eta zehazten joan garenak. Gure jarduera sindikalean dauden arrisku-faktoreak minimizatzea da helburua, eta horretarako antolakuntza-neurriak eta baliabide pertsonalak hobetzeko tresnak garatu ditugu.

Bereziki aipatu nahi dugu “ELAko militanteen aurkako erasoen eta militanteen arteko gatazken prebentziorako protokoloa”. Sexu-jazarpena, jazarpen sexista, LGTBI pertsonen aurkako jazarpena, lan-jazarpena eta bestelako ekintza diskriminatzaileak, baita militanteen arteko jarrera desagokiak ere, prebenitu eta artatzeko protokoloa da.

Protokolo honen bidez, ELAk duen ardura politiko eta legala bere gain hartu du, liberatu, ordezkari, militante eta afiliatu guztientzat lan- eta bizi-inguru seguru eta osasungarria bermatu eta sustatzeko. Era berean, ELA emakumeentzat eta bere burua indarrean dagoen sexu-genero sistematik eta heteroarautik kanpo kokatzen duten pertsonentzat leku libre eta segurua izatea nahi dugu, diskriminazio mota orori aurre eginez.

7. BORROKA JURIDIKO EREDUGARRIA EKINTZA SINDIKALA INDARTZEKO >>>

Lan-harremanak gero eta desarautuagoak eta malguagoak diren testuinguruan, ezinbestekoa da lan-eskubideen defentsan erreferente izango den zerbitzu juridiko eraginkor bat izatea. Zerbitzu juridikoak funtsezko rola betetzen du, azken kongresuan estrategikotzat jo genituen prekaritatearen eta emakumeen eskubideen urraketen aurkako borrokan.

Lan-baldintzak arautzeko enpresen aldebakarreko boterea indartu bada ere, beti dago auzitegietara jotzeko aukera, erabaki guztiak kontrol judizialaren menpe baitaude. Horregatik, gure talde juridikoa egunero borrokatzen da prekaritatearen aurka, legeek eskaintzen dituzten aukera guztiak baliatuz. Urtero milaka erreklamazio aurkezten ditugu, bai indibidualak bai kolektiboak, eta gatazka edo greba bakoitzean ekintza sindikala laguntzeko auzitegietara jotzen dugu. Azken kongresu arteko epean ia 40.000 espediente juridiko ireki ditugu, aurreko epean baino %10 gehiago. Urtean 9.000 pertsona baino gehiago artatzen dugu zerbitzu juridikoen bidez, eta ia herena zerbitzu hau jasotzeko afiliatzen da.

Lan-arazoak gero eta konplexuagoak dira, eta horrek gure taldearen eskakizun teknikoak areagotzea eskatzen du. Kontratazio-eredu aldakorrek, azpikontratazioek eta digitalizazioak iruzur eta lan-eskubideen urraketa berriak ekarri dituzte. Horrek taldearen prestakuntza teknikoa etengabe handitzea eskatzen du, baita genero-ikuspegia integratzeko erronkari erantzutea ere, ikuspegi juridiko konplexu eta sakonago bat garatuz.

7.1. Epaitegietan lortutako garaipen esanguratsuak

Azken urteetan, gure zerbitzu juridikoek garaipen esanguratsuak lortu dituzte epaitegietan. Besteak beste, grebarako eskubidea eta askatasun sindikala urratu direla onartu digute (Novaltia, Douglas), neurriz kanpoko gutxieneko zerbitzuak baliogabetu dira (Bizkaiko kiroldegietako langileak), eta kaleratze kolektiboak bertan behera uztea lortu dugu (PCB, Hydra Boulevard, Cirmauto, Vulcanizados Zuloaga). Halaber, Berdintasun Planen negoziazioan sindikatuaren parte-hartzea oztopatzea legez kanpokotzat jo da (Gipuzkoako Foru Aldundia, Meatzalde Bus), eta Iberdrolak eta Amazon-ek legez kontrako langileen lagapena aitortu behar izan dute. Bajan egondako langileen kaleratzeak baliogabetzea ere lortu dugu.

Sektore publikoan ere garaipen handiak izan ditugu. Haurreskolak Partzuergoan, Eusko Jaurlaritza eta zuzendaritza oposaketetan 77 lanpostu gehiago eskaintzera behartu ditugu. Era berean, irregularki kontratatutako langileen finkotasuna lortu dugu Eusko Jaurlaritzan eta Donostia Kulturaren.

Genero-ikuspegitik urrats esanguratsuak eman ditugu: Etxeko langileei langabezia-eskubidea aitortzea lortu dugu, ama bakarren baimenak luzatu dira, eta emakumeen aurkako diskriminazioa hainbat kasutan onartu da. Gipuzkoako Foru Aldundiak haurdun dauden emakumeak kontratazio-zerrendetatik kanpo uztea legez kanpokotzat jo du, Bilboko Metroan zaintza-erantzukizunak dituzten langileek soldata osorik kobratzeko eskubidea aitortu da, eta Goriizko Udaletxean, jazarpen-egoeretan enpresak neurri egokirik ez hartzeagatik, langileei kalte-ordaina eman behar izan die.



Lan-osasunean ere epai garrantzitsuak lortu ditugu Bidelagun Fundazioaren eskutik.

7.2. Prekaritatearen aurkako eta genero ekitatearen aldeko estrategia juridikoa

Prekaritatearen aurkako borrokan, gure talde juridikoaren eta federazioen arteko koordinazioa nabarmen hobetu dugu, lan koordinatuak eraginkortasuna handitzen duela egiaztatuz. Horren adibide da Novaltia enpresaren gatazka, greba-eskubidearen urraketa salatzen zuten hamar epai baino gehiago irabazi baititugu, eta horiek akordioa sinatzeko erabakigarriak izan dira. Lan egiteko modu hori etorkizunean sendotu eta zabaltzeko behar dugu.

Aurreko kongresu arteko epean, lan-osasuna eta kaleratze kolektiboak behar bezala lantzeko talde juridiko espezializatu bat izatea ezinbestekoa zela ikusi genuen. Horretarako, Bidelagun Fundazioa eta konkurtso taldea sortu genituen, eta horrek esparru horietan espezializatutako abokatuak izatea ahalbidetu du. Horri esker, afiliatuei arreta hobea eskaini eta esparru juridikoan berrikuntzak egin ditugu. Orain, esperientzia horiek sindikatu osora zabaltzea eta zerbitzu juridikoko kide guztien eskura jartzea da gure erronka.

Zerbitzu juridikoetan genero diskriminazioei aurre egin eta ekitaterako bidean pausoak emateko bi helburu lehenetsi genituen. Alde batetik, zerbitzu juridikoetako pertsonak gaitzea eta bestetik, generoarekin lotutako informazioa jasotzeko eta erregistratzeko sistema berria ezartzea. Berriazko trebakuntza egiten hasiak gara eta sakontzen jarraituko dugu, eta informazio eta datu berezitua jaso eta erregistratzeko tresnak ere sortu ditugu, baita gure funtzionamenduan txertatu ere.

8. ILDO ESTRATEGIKOEN GARAPENEAN EMANDAKO AURRERAPAUISOAK >>>

2021ean, 15. Kongresuko Ponentzian jasotzen zen lau urtetarako plan estrategikoa adostu genuen, bost ildo estrategiko aukeratuz. Bost gai hauetan gauza berriak egiteko hautua egin genuen.

Plan estrategikoa tresna baliagarria izan da, baina lan egiteko moduak moldatzea eskatu digu, izan ere prozesu horrek denbora behar baitu. 2021ean hasitako bidean aurrera egin dugun arren, ezinbestekoa da oraindik gehiago sakontzea.

Bost ildo horietan ahalegin handia egin dugu, eta emaitza desberdinak izan baditugu ere, bidea egin dugu eta hurrengo urteetan garatzeko urratsak eman ditugu.

8.1. Lan egiteko erak sistematizatzen eta hobetzen ari gara

15. Kongresuan, planifikazio estrategikoaren aldeko hautua berretsi genuen, lan egiteko moduak eraginkorragoak bihurtzeko eta plangintzaren kultura sustatzeko apustua, alegia.

Planifikazioa, estrategia eta eraginkortasuna hitz potoloak dira eta konkretuki lantzea funtsezkoa da, abstrakzioan galtzea saihesteko. Azken urteetan, horretan aritu gara. Hein handi batean sindikatuak erakunde erreaktiboak garela jakinda ere, posible dugun neurrian eta nahiko genukeen abiadan ez bada ere, estrategiak gure ekintzan geroz eta pisu eta leku gehiago izan dezan pausoak sendotzen ari gara, efizientzia bilatuz, beharrezko hobekuntzak antzemanaz, helburuak eta ekintzak planifikatuz eta ebaluazio sistemak ezarriz.

Prozesu hau bermez garatu ahal izateko, baliabideak jarri ditugu Kudeaketa Sistema garatzeko, bai federazioetan eta bai zuzendaritzan. Kongresuak emandako aginduan jasotzen zen bezala, argi genuen prozesuak mailakatua eta ondo oinarritutakoa izan behar zuela. Sakon errotuta dugun kultura bat aldatu nahi dugu eta horrek epe luzeko lan handia eta sakona eskatzen du.

Prozesua sindikatuko zuzendaritzarekin hasi dugu, antolakuntza logikak eta kultura-aldaketa sakontasunak hala eskatzen baitute. Kudeaketa Sistemako talde berria martxan jarri dugu, eta trebakuntza-ziklo indartsu batekin abiatu gara. Zuzendaritza osoa trebatu ondoren, planifikazioari ekin diogu: esparru bakoitzean hobetzeko marjinak identifikatu, lehentasunak ezarri eta hobekuntzak martxan jartzeko plangintza ordenatuak egin ditugu, horretarako beharrezkoak diren tresna informatikoak sortuz.

8.2. Genero ekitaterako plana aurrera doa

Genero Ekitatea izan da azken kongresualdiko beste ildo estrategikoetako bat. 15. Kongresura diagnostiko sakon batetik abiatutako eta ELAren ekintza sindikala goitik behera eraldatzeko asmoa zuen Genero Ekitaterako Planarekin iritsi ginen.

Konpromisoa hartu genuen plana martxan jartzeko, berariazko plangintzak diseinatzeko, jarraipen eta ebaluazio sistema bat ezartzeko eta Genero Arkitektura izeneko koordinazio egitura sortzeko, sindikatua zeharka eraldatzeko.



Hasieratik jakin genuen aldaketa estrukturalak eskatuko zituela, eta prozesua luzea eta sakona izango zela. Oraindik goiz da eboluzioaren diagnosi bat egiteko, baina ELA sindikatu feministak bihurtzeko bidean urrats erabakigarriak egiten ari gara.

Planak bederatzi esparru ditu, bakoitza bere estrategia eta helburuekin: Ekintza Soziala, Gizarte Eredua, Ikasketa Formala, Ikasketa Informala, Zerbitzu Juridikoak, Mobilizazio eta Kanpainak, Negoziazio Kolektiboa, Hauteskunde Sindikalak eta Sozializazio eta Kontzientziazio Espazioak. Jakitun gara esparru hauek guztiak jorratzea eta planak eskatzen duen aldaketa sakona eta iraunkorra gauzatzea ezinezkoa dela kongresu arteko epe bakarrean, baina bide honetan pauso esanguratsuak eman ditugu.

Genero Arkitektura sortzeko konpromisoa bete dugu. Esparru bakoitzean “Irule” deitu diegun ordezkariak izendatu ditugu eta guztiek Genero Taldea osatu dute. Hilero biltzen dira plan operatiboen jarraipena egiteko, gai monografikoak eztabaidatzeko eta tresna berriak diseinatzeko.

Bestalde, Genero Planean jasotakoari jarraituz, eskualde bakoitzean sozializazio eta kontzientziazio espazioak sortzen hasi gara. Bertan, emakume ordezkariak biltzen dira hilero, sindikatuaren ekintza sindikala haien esperientziak eta beharrak kontuan hartuz garatu dadin.

Genero Arkitekturaren garapena, Iruleen izendapena, Genero Taldearen dinamizazioa eta plan operatiboen diseinua esfortzu handia eskatzen ari da. Horren ondorioz, ezin izan ditugu nahi beste sozializazio eta kontzientziazio espazio sortu, baina lau eskualdetan dagoeneko abian daude. Aurrera begira, hamabi eskualdeetan espazio sendo eta errotuak sortzea da gure helburua, eta horretarako lanean jarraituko dugu.

8.3. Sindikalizazioa errotzen

Azken kongresuan sindikalizazioari bultzada berri eta indartsu bat emateko konpromisoa berretsi genuen. Argi genuen erronka zaila eta iraunkorra izango zela, esfortzu handia eskatuko ziguna, eta egindako bideak aurreikuspen hori baieztatu du.

Kongresu hartan sindikalizazioa “afiliatuak lantokietan eta sektoreetan modu eraginkorrean antolatzeko prozesu” gisa definitu genuen. Urte hauetan antolakuntza hori zertarako nahi dugun ere zehaztu dugu: langileen konfrontaziorako gaitasuna indartzeko, alegia. Gainera sindikalizazio prozesua diseinatu, pausoak definitu eta egikaritzeko baliabideak bideratu ditugu.

Hasierako fasean, trebakuntzari lehentasuna eman diogu. ELAren egiturako kideek eta ordezkariak oinarri sendo bat jasotzea ezinbestekoa ikusi genuen. Horrela, sindikatuko egiturako 150 arduradun baino gehiagok lau moduluko prestakuntza jaso dute, eta hauek, aldi berean, 250 ekipo edo sail sindikal trebatu dituzte, guztira ia 900 ordezkari. Hau izan da azken urteetako ardatz nagusia sindikalizazioan.

Esfortzu berezia egin dugu lan munduaren egungo errealitatera egokitzeko. Sindikalizazio eredu klasikoa berrikusi eta egokitu dugu, industria sektore maskulinizatueterako baliagarri izateaz gain, sektore feminizatu eta atomizatueterako ere balio dezan. Honek tresna bateratuak sortzea ahalbidetu digu, sindikalizazioaren ebaluazioa, jarraipena eta planifikazioa modu ordenatuan egiteko.

Hala ere, oraindik erronka asko ditugu: sindikalizazio prozesuan oraindik sartu ez diren esparruekin lan egitea, ETEetan sindikalizazioa nola gauzatu aztertzea eta Genero Ekitaterako Plana prozesuan txertatzea, besteak beste. Sindikalizazioa arlo batzuetan ez da berria, baina

beste batzuetan bai, eta prozesu berriei denbora eman behar zaie behar bezala errotzeko eta doikuntzak egiteko.

Sindikalizazioaren errotzea behar bezala egiten ari garela esan dezakegu, mimos, nahi baino geldoago, baina etenik gabe. Datozen urteetan asko dugu egiteko eta aurreratzeko.

8.4. Militantzia: sakondu eta zabaldu beharreko lanketa

Azken Kongresuan, sindikatuaren barruan militantzia soziala indartzea helburu estrategiko moduan ezarri genuen. Gure oinarri sindikala mobilizatu nahi dugu, enpleguaren eremua gainditzen duten eta langileen eguneroko bizitzako arazoei eragiten dieten politiken inguruan.

Helburua bizi-baldintzen hobekuntzarekin konprometitu dagoen militantzia aktiboa sendotzea zen eta hala jarraitzen du izaten, prekaritateari eta desberdintasunei bere adierazpen guztietan aurre eginez. Eztabaida sindikalaren erdigunean kokatu genuen lan- eta bizi-prekaritatea, eta gure ekintza hedatu nahi izan dugu tradizionalki antolatutako kolektiboetatik harago, etxeko langileetara edo muturreko prekaritatean pairatzen duten pertsona migratuetara, esaterako.

Helburu estrategiko honen garapenean aurrera egin ahala, aurrez bi dimentsiotan lan egiteko beharra nabarmendu zen:

- a) Militantziaren esanahiari buruzko hausnarketa partekatua, sindikatu feminista gisa garatzen ari garenekin bat datorrena.
- b) Sindikatuan parte hartzeko guneen sendotzea.

Urte hauetan, Nazio Batzordeak barne-eztabaida prozesu bat bultzatu du, jada sindikatuaren hainbat esparrutara zabaldu dena eta hurrengo kongresu arteko epean jarraipena izango duena.

Lan horri esker, ELAren militantzia-kulturaren inguruko ikuspegi partekatu bat eraiki ahal izan dugu, erantzukizunak eta erronkak definituz. Ez dira eztabaida teoriko soilak izan, militantzia indartzeko eta zabaltzeko ekimen zehatzak sortu ditugu, bai lan-eremuan, bai gizarte-eremuan.

Kongresu arteko hurrengo epealdian, funtsezkoa izango da militantzia sendotzea eta zabaltzea. Ponentziak elementu estrategiko gisa jasotzen du. Urte hauetan, proiektu inklusiboago eta parte-hartzaileago baten oinarriak finkatu ditugu. Erronka ez da soilik militante kopurua handitzea, baizik eta haien konpromisoa indartzea, militantzia aktiboa, zuhurra eta eraldatzailea sustatuz.

Militantziaren egituraketan eta parte-hartzean hainbat alderdi sakondu ditugu:

- a) 15. Kongresuaren aurretik, Eskualde Batzorde Federalen eta Eskualde-Kontseiluen Araudia onartu genuen, federazioetan eta eskualdeetan antolaketa eta parte-hartzea hobetzeko. Aldaketa horiek indartu eta zabaldu egin dute militantziaren presentzia organo horietan.
- b) Hamabi Eskualde Kontseilu berriak (Nafarroan Lurralde-Kontseilua) urtean bitan biltzen dira lan-ildoak eta estrategia nagusiak partekatu eta eztabaidatzeko. Kongresukideak izendatzea edo Nazio Kontseilurako ordezkariak berrestea ere organo



honi dagokio. Oraindik hobetzeko tarte badaukagun arren, gaur egun organo horiek funtsezkoak dira eskualde bakoitzeko militantzia sendotzeko.

- c) 15. Kongresuan, ELAren Estatutuen erreforma onartu genuen, eta, horri esker, Nazio Kontseiluaren osaera handitu ahal izan genuen, militantziari parte-hartze handiagoa emanez (eskualdeetako 30 ordezkari gehiago eta federazioetako beste 30 ordezkari gehiagorekin). Kongresuaren aginduari jarraituz, Eskualde-Kontseiluek eta Batzorde Federalek dagozkien izendapenak egin zituzten eta Kontseilu Nazional berriak bere funtzioak hartu zituen kongresuen arteko erabaki-organoren gisa, oinarritzeko militanten presentzia handiagoarekin.

8.5. Prekaritatearen aurkako borroka gure ardatz bihurtzen ari da

Aurreko Kongresuan, ELAren negoziazio kolektiboaren erdigunean prekaritatearen aurkako borroka kokatzea adostu genuen. Lan-mundua gero eta prekarizatuago dago (soldata baxuak, lan-partzialtasuna, behin-behinekotasuna), eta sindikatuak lehentasunez landu behar ditu horiek.

Prekaritate egoeran dauden langileak borroka sindikalera batzeko, beren beharrei erantzutea ezinbestekoa da, enpresek langileak beldurtu eta diziplinatzeko tresna gisa erabiltzen baitute egoera hori.

Helburu hori gauzatzeko, 750 lantokitan prekaritatearen aurkako plangintzak martxan jarri ditugu. Gehiagotan ere saiatu garen arren zailtasunak izan ditugun gauzatzeko.

Bi faktorek eragin dute zailtasun hori: batetik, gatazka eta greba dinamika indartsuak eragindako lan-kargak asko zaildu dute eguneroko ekintza sindikaletik kanpoko elementu berriak lantzea, eta bestetik, inflazio altuak gure negoziazio kolektiboa asko polarizatu du eros-ahalmenaren bueltan eta oztopo izan da bestelako elementu batzuei zentraltasuna ematerakoan.

Sektore publikoan, egonkortasuna izan da lehentasuna, lege-aldaketen epemugek baldintzatuta. 2023 eta 2024an hiru greba deitu ditugu EAEko sektore publiko guztian, baina ez dugu lortu lantokiz lantoki prekaritatea murrizteko plan zehatzak ezartzea.

Horri aurre egiteko, negoziazio kolektiboaren bidez prekaritatea lantzeko prozesua moldatu dugu, bereziki negoziazioaren prestaketan prekaritatearen analisi egoki bat egiten dugula bermatzeko eta, ondoren, prekaritatearen aurkako aldarrikapenak gure plataforma eta akordioetan lehentasuna dutela ziurtatzeko.

Zailtasunak zailtasun, azken lau urteetan ELAk sinatutako hitzarmenen erdiek prekaritatea murrizteko klausulak barne hartu dituzte, beste sindikatuak ez bezala. Gutxieneko soldata duinak ezarri ditugu sektore prekarizatuetan, partzialtasuna eta behin-behinekotasuna murrizteko neurriak lortu ditugu, eta lan osasuna hobetzeko klausulak ezarri ditugu. Sinatu ditugun sektoreko hitzarmen guztietan 1.300 euroko gutxieneko soldata ezarri dugu 2021 eta 2022an eta 1.400 eurokoa 2023 eta 2024ean. Esandakoaren adibide aipagarriak dira: Gipuzkoako metalgintzan azpikontrataturako langileen subrogazioa bermatzea, EAEko ehungintzan partzialtasuna murriztea, edo Gipuzkoako ostalaritzan lan-kargen eta arrisku psikosozialen azterketak ezartzea.

Prekaritate handiko sektoreetan borrokak antolatzen ere lan egin dugu. Gipuzkoako sorosleen kasuan, uda garaian soilik lan egiten duen langile kolektibo gazte hau, antolatu, greba deitu eta estatu osoan sorosleen lehen hitzarmena lortu genuen. Aldiz, Domino's Pizza katean, greba mugagabea antolatzea lortu genuen, baina enpleguaren behin-behinekotasunak

eta lan-baldintza kaskarrek bultzatuta bestelako lana bilatzeko jendearen beharrak grebaren eraginkortasuna ahuldu zuen, langileek bestelako lanak aurkitzen zituzten heinean.

Bi kasuek agerian uzten dituzte gazteen lan-aukeren prekaritatea eta izaera esporadikoa. Egoera hauetara moldatzeko gaitasuna izan behar dugu gazteen lan egoerari eta prekaritate mota hauei modu eraginkorrean erantzun nahi badiegu. Digitalizazioak ere prekaritatea areagotu du, bai gazteen artean, baita modu orokorrean ere. Uber edo Amazon bezalako enpresetan borroka berriak martxan jarri ditugu, batzuk emaitza bikainekin.



9. GURE EKINTZA SINDIKALA INDARTU DUTEN ARLOAK >>>

9.1. Azterketa bulegoa: politika publikoen analisi kritikoa eta gizarte justuago baterako proposamenak

ELA bezalako klase sindikatu batentzat funtsezkoa da egoera sozioekonomikoa eta politika publikoak zorrotz aztertzea, elite ekonomikoek eta gobernuek inposatutako politikei eta pentsamendu bakarrari aurre egiteko. Eta honekin batera, ezinbestekoa dugu gizarte justuago baterako alternatiba errealistak proposatzea.

Horretan dihardu Azterketa Bulegoak. ELA erreferente bihurtu da hausnarketa eta proposamen alternatiboak bilatzen dituztenentzat. Botere ekonomikoek ezarritako markoa apenas zalantzan jartzen ez den honetan eta adostasun politikoa totem bihurtu denean, sindikatuak egiten dituen azterketa proposamenek berebiziko garrantzia dute.

Azken urte hauetan, gure hausnarketa eta azterlanetan, zeharka, genero ikuspegia txertatzen ari gara eta argitalpen eta buletinean genero gaiei leku berezia egin diegu.

Azken kongresutik hona hainbat arlotan lan sakona egin dugu, sindikatuaren hausnarketa nagusi eta kanpainekin lotuta:

- a) Etxebizitza: eskuragarritasuna gero eta arazo larriagoa da, eta Ekintza Sozialarekin elkarlanean diagnostiko eta alternatibak proposatu ditugu.
- b) Europako marko ekonomiko eta soziala: Europako funtsen baldintzen, pentsio- edo lan-erreformen eta arau fiskalen azterketak egin ditugu.
- c) Zerga-sistema: bi analisi sakon egin ditugu gure diagnostikoa eta proposamenak aurkeztuz; azkenak 2024ko udazkenean buruturiko kanpaina elikatzeko balio izan zигun.
- d) Migrazioa: pertsona migratuek jasaten duten diskriminazioa eta haien eskubideak aztertzen dituen lana argitaratu dugu.
- e) Zaintza: greba feminista orokorraren harira, zaintzaren egoerari buruzko txosten integrala argitaratu genuen.

Bestalde, hainbat txosten ere argitaratu ditugu aldiro:

- a) Egoeraren Azterketa: urtean bi aldiz kaleratu dugu, munduko gertakariak guregan duten eragina ere txertatuz.
- b) Iruñeko eta Gasteizko gobernuen aurrekontuen azterketa: analisi kritikoa egin eta gobernuen propaganda biluzteaz gain, aurrekontu sozialagoak bultzatzeko proposamenak ere aurkeztu ditugu.
- c) Buletin digitala: hilero bidali dugu gai sozial eta ekonomikoen inguruko funtsezko datu eta hausnarketak biltzen dituen txostena, genero ikuspegia integratuz.

Bestelako gaiei buruzko azterketak eta argitalpenak ere plazaratu ditugu, hala nola, “EBren agenda berde eta digitala” jardunaldian aurkeztu genuen zor publikoari buruzko azterketa, Lanbidearteko Gutxieneke Soldataren inguruko proposamena ere landu dugu Negoziazio Kolektiboko Kabinetearekin batera eta garraioaren deskontuak mantentzeko dinamiketan parte hartze aktiboa izan dugu.

Espazio ezberdinetan parte hartzen jarraitu dugu, baita espazio berrietara zabaltzeko ere:

- a) Euskal Herriak Kapitalari Planto: Enpresa transnazionalen eta giza eskubideen euskal zentroaren sorreran parte hartu dugu.
- b) Nazioarteko plataformak: Nazioarteko arduradunekin eta Ekintza Sozialarekin batera Munduko Foro Sozialean, Marrakeko Mugimendu Sozialen Kontragailurrean edota Europako Espazio Komun Alternatiboaren (ECSA) jardunaldietan ere parte hartu dugu.

9.2. Ingurumena: trantsizio ekosozial justu baterako urratsak

Krisi ekologikoari aurre egitea gure lan sindikalean barneratzeko asmoz, gai ezberdinei heldu diegu —energia, klima, materialen eskasia, eredu ekonomikoa, mugikortasuna...— sindikatuaren ikuspegia eta proposamenak landuz, bidezko trantsizio ekosozial baterako bidean.

Gure erronka nagusia proposamen horiek lantokietara eramatea izan da. Horretarako, barne-lanketa sakona egin dugu, 2023an Hego Euskal Herriko energiaren kontsumoari buruzko azterketa eginez eta bertan oinarrituta ELAren trantsizio ekosozialerako proposamena aurkeztu genuen.

2024an, proposamen horiek lan-zentroetan jorratzeko lan berezia egin genuen. Enpresetan landuko ditugun proposamen ezberdinak jasotzen dituen dokumentu bat egiteaz gain, sindikatuko federazioetako militanteekin lanketa berezia egin genuen trantsizio ekosoziala ohiko jardunean txertatzeko, eta negoziazio kolektiboan proposamen zehatzak txertatzeko.

ELA barnean eta jendartean gure ingurumen-kontzientziazioa handitzeko lan egiten jarraitu dugu:

- a) Buletin digitala argitaratu dugu hilero, ingurumen-gai nagusiak jorratuz.
- b) Hego Euskal Herriko emisioen txostena egin dugu, kutsadura murrizteko proposamenekin.
- c) Europako ingurumen politikak jarraitu ditugu, energia nuklearra eta gasa salatuz eta alternatibak azaleratuz.
- d) EAEko Trantsizio Energetikoaren legearen inguruko balorazioa kritikoa eta alternatibak plazaratu ditugu.
- e) Elikadura burujabetza sustatzeko proposamen zehatzak landu ditugu, jangela kolektiboen garrantzia azpimarratuz.
- f) Ekofeminismoan aurrera eramaten ari diren ekintzen jarraipena egin dugu.
- g) Mugikortasun eredu trantsizio energetikoaren baitan landu dugu, garraio publikoaren aldeko aldarrikapenekin.



Ekologia eta ingurumen gaiak eztabaidagai diren esparru ezberdinetan parte hartze aktiboa izan dugu, "Azken krisia, gure garaia" lelopean ospatutako Ekotopaketetan, TUEDen (Demokrazia Energetikoaren aldeko Sindikatuen Sarea), Euskal Herrian ingurumen inpaktu negatiboa duten proiektuen kontrako ekintzetan (erraustegia, AHT, Guggenheim Urdaibai...),

Ingurumen gaitan ere genero diskriminazioa eragiten duten mekanismoa antzeman eta trantsizio ekosoziala eta feminismoa uztartzen dituen lanketa egiten hasiak gara.

9.3. Ekintza soziala: gizarte eraldaketan eragiten

2019an sortu genuen Ekintza Sozialeko arloa, gai sozialak sakonago eta eraginkorrago lantzeko. Herrialde bakoitzean arduradun batekin, sindikatuaren ohiko jardunean gai hauek txertatzen saiatu gara, militantziarekin lantzeak dakartzan zailtasunak gaingaitzen saiatuz.

Hiru ildo nagusitan jorratu dugu lana:

- a) Gai sozialen lanketa ELAko militanteekin: Etxebizitza, arrazakeriaren aurkako borroka eta fiskalitateari buruzko kanpainak egin ditugu, materialak sortuz, ekimenak antolatuz eta mobilizazioak bultzatuz, gai hauek sindikatuaren eguneroko jardunean integratuz.
- b) Aliantzak eta elkarlana: Sindikatuaren borroka eremu diren esparru guztietan nazio mailako zein lurralde ezberdinetako mugimendu, eragile, elkarte eta talde ezberdinekin harremanak izan ditugu, baita ekimen ezberdinetarako elkarlana bultzatu ere.
- c) Alternatiben identifikazioa eta sustapena: ELAko proiektu eraldatzaileak babestu eta zabaldu ditu, Alternatiben Mapa sortu eta sindikatuan sozializatu dugu. Hainbat proiektutan parte-hartze zuzena ere izan dugu, Amillubin, Izarkomen, Biziolan edo Euskal Monetan, besteak beste. Ekarpene ekonomikoa egiteaz gain, bestelako konpromisoak ere hartu ditugu geure gain.

Aliantza eta elkarlanari begira genero ikuspegia bereziki landu dugu, genero ekitaterako plana jarraituz. Horretarako, emakume erreferenteen zerrenda eta eragile feministen mapa osatu dugu.

9.4. Genero politikak: lan mundua eta gizartea eraldatzen

Azken hamarkadan, ELAren estrategia feminista bi ardatzetan garatu dugu: genero arloaren ekimenak eta Genero Ekitaterako Plan Estrategikoa.

Hiru dimentsiotan egin dugu lana:

- a) Hausnarketa politikoa genero ikuspegitik. Azken urteetan eztabaidagai izan diren hainbat legeren inguruan gure irakurketa propioa egin dugu:
 - "Soilik bai da bai" legea aurrerapausoa da, adostasuna edozein harreman onargarri izateko baldintza moduan jarri du.
 - Trans Legeak urrats garrantzitsua eman du trans pertsonen eskubideetan.
 - Familien Legeak ez ditu genero-desberdintasunaren egiturazko elementuak aldatzen eta neurriak ez dira nahikoak.

- LGTBI berdintasunerako Errege Dekretua motz geratu da, legea urratzen duten enpresentzat neurri eta kontrol-mekanismoak gabe.
- b) Transfeminismoa landu dugu, feminismoa opresio guztien aurkako borroka interseksionaltzat ulertuz.
- c) Negoziatio kolektiboan genero ekitatea sustatu. Honako neurriak garatu ditugu:
 - Genero-arrakala murrizteko klausulak hitzarmenetan.
 - Sektore feminizatueta borroka indartu (zaintza, garbikuntza, merkataritza).
 - Etxeko langileentzako hitzarmen kolektiboaren prozesu juridikoa abian jarri.
- d) Eragile feministekin aliantzak sendotu. Bilgune Feminista, Bizitzak Erdigunean, Marie-nea, Talaia Feminista, Malen Etxea, Itxia eta LGTBI kolektibo ezberdinekin izan dugu harremana (EHGAM, Lumagorri, Loratuz Lotu, LGTBI Behatokiak). Ekainaren 28ko mobilizazioetan trans eta intersex pertsonen ikusgarritasuna sustatu dugu, hetero-normatibitatea hausten duten kolektiboek ahotza emanez.

Aipamen berezia merezi du zaintzen krisia ardatz izan zuen 2023ko Greba Feminista Orokorrak. Grebaren lanketan ehunka atal sindikalekin hitz egin genuen zaintza sistema publikoaren beharraz eta milaka emakume ahaldundu dira eta hartu dute parte emakume taldeetan edota herrietako asanbladetan. Sindikatuan urteetan, sektore feminizatu ezberdinetako borroken bidez, zaintza erdigunean kokatzeko egindako lanarekin erabat lerrotua dagoen deialdia izan zen. Azken hiru urteetan, martxoaren 8a dela eta, zaintza lanen balioa eta aitortza, horiek bermatuko dituen sistema publikoaren beharra eta etxeko langileen eskubideen onarpena landu ditugu.

Indarkeria matxistaren aurkako borrokan ere gogor aritu gara. Emakumeen Mundu Marxak kide gisa, erailketa matxistak salatu eta neurri eraginkorrak eskatu ditugu. Gainera, lantokietan sexu jazarpenaren aurka borrokatzeko tresnak garatu ditugu. Hala nola, protokolo ereduak edo jazarpena detektatzeko inkestak eta lan osasun arloarekin koordinazioa hobetu dugu. Honen adierazgarri da azaroaren 25aren inguruko 2022ko jardunaldiak laneko jazarpena ardatz izatea eta 2024koak autodefentsa feminista. Sindikatua autodefentsarako espazio bihurtzeko lanean ari gara.

9.5. Euskaraz lan eta bizitzeko borroka

Azken lau urteetan, langileok euskaraz bizitzeko eta lan egiteko eskubidea bermatzeko bi ekimen nagusi bultzatu ditugu.

Lehenik, Kontseiluarekin eta LABekin batera, CONFEBASK eta CENekin lantokietan euskara planak negoziatzeko marko bat adostu nahi izan dugu, lanbidearteko akordio bana proposatuz. Baina patronalek ez dute konpromisorik hartu, eta administrazioek ere ez diete priorik egin. Horren aurrean, ELAk sektoreko hitzarmenak baliatu ditu klausula espezifikoak sartzeko, hala nola Gipuzkoako metalgintzan, Bizkaiko adinekoren egoitzetan eta Gipuzkoako metalaren merkataritzan. Etorkizunean sektore gehiagotan eskaera hau gauzatzea izango dugu helburu, enpresetan euskara planak orokortuz. Horretarako, Euskara Planen Gida sortu dugu gure militanteei laguntzeko.

Bigarrenik, EAEn eta Nafarroan administrazioetan euskararen erabilera normalizatzeko dekretuak berriro dira. EAEn, Kontseiluarekin eta LABekin batera 15 urtetan euskararen eta gaztelaniaren ezagutza parekatzeko prozesua adostu genuen, langile publiko guztiek



euskaraz lan egiteko eta herritarrek gure hizkuntza propioan zerbitzua jasotzeko eskubidea bermatze aldera. Hala ere, Eusko Jaurlaritzak egungo marko juridiko diskriminatzailea mantentzea erabaki du. Nafarroan, berriz, administrazioetako langile publikoen merezimenduen dekretua berritu da, eta euskarari atzerriko hizkuntzek baino trataera okerragoa eman zaio. Gure proposamenek langileen kontsolidazioa eta euskara ikasteko laguntza uztartzea izan dute helburu, urte luzez behin-behineko kontratuen bidez lan egin duten langileak egonkortu eta denon hizkuntza eskubideak bermatzeko.

Administrazio eta enpresa pribatuetan soilik euskaldunen hizkuntza eskubideak zapaltzen badira ere, euskara eskakizunak murrizteko eta euskararen presentzia gutxitzeko oldarraldi judizial, mediatiko, politiko eta sindikala pairatzen ari gara. Ondorioz, hainbat epai etorri dira hizkuntza eskubideak are gehiago mugatuz. Honen aurrean, ELAk eragile sozial eta sindikal euskaltzaleekin batera erantzun du.

ELA barruan ere, hizkuntza eskubideak bermatzeko, plangintza bat abiatu dugu zerbitzu juridikoetan. Justizia arloan oraindik ere euskaraz aritzeko beldurra handia den arren, izapide guztiak gure hizkuntzan egiteko eskaintza aktiboa egiten hasi gara. Pauso garrantzitsua da eta jarraipena eman behar diogu.

Aurreko kongresuko erabakiari jarraiki, eskualde eta sektore euskaldunetan ELAren komunikazioak euskaraz egin ditugu. Arnasgune diren lurralde eta sektoreetan euskararen hegemonia mantentzea ELAren funtsezkoa ekarpena da euskarak hizkuntza bizia izaten jarrai dezan.

Azkenik, euskararen aldeko ekimenetan parte hartzen jarraitu dugu, hala nola Korrikan edo Euskaraldian.

9.6. Lan osasuna eta Bidelagun: langileen osasuna eta bizitza babesteko estrategiak eta tresnak

Azken lau urteak gogorrak izan dira lan osasunean. 256 langile hil dira lan istripuetan, baina Lanaren Nazioarteko Erakundearen arabera, laneko heriotzen %13 besterik ez dira istripuen ondorio. Azpierregera handia dago, eta istripuak arazo estruktural baten adierazle baino ez dira.

Hildako traumatikoez gain, arrisku psikosozialak eta bestelako osasun-galerak nabarmen hazi dira, batez ere sektore feminizatuetan. Egoerari aurre egiteko, LAB, ESK, STEILAS, HIRU eta Etxalderekin protokolo bat kudeatu genuen 2022ra arte, sindikatuen arteko lehia saihesteko eta patronalari zein gobernuei presio egiteko, esparru honetan ere, kontzertazio sozialaren iruzurra agerian utziz. LABek, ordea, 2022an Osalanen eta Nafarroako Lan Osasuneko Institutuan bere parte-hartze instituzionala berreskuratzea erabaki zuen, nahiz eta ELAk eta LABek organo horietan parte ez hartzea erabaki genuenetik ezer ez den aldatu. Honek ezinezko bihurtu zuen elkarrekin protokoloari eustea. Izan ere, kontzertazio soziala eta kontrabotereko borroka bateraezinak dira, eta estrategia bikoitzak sindikatuen arteko lehia elikatu besterik ez duelako egiten. Ordutik, zoritxarrez, ELAk bere kabuz ematen du lan istripu edo heriotzen aurreko erantzuna.

Aurreko kongresuko hausnarketen baitan Bidelagun Fundazioa sortu genuen lan osasunean prebentzioa bultzatzeko, pedagogia soziala egiteko eta langileen defentsa indartzeko. Abokatu espezialistak antolatu ditugu eta, 2022an lanean hasi zenetik, 397 kasu kudeatu ditugu, espediente kopurua urtez urte handitzen joan delarik. Fundazioa gero eta erreferentzialagoa da, eta horrek kasu eta epaiketa kopurua esponentzialki igo du. Batez ere lan istripu larriak, gaixotasun profesionalak (batez ere amianto kasuak), sexu-jazarpena eta

arrisku psikosozialak jorratu ditugu. Gai larriak dira eta emozioen kudeaketa sakona eskatzen dutenak.

Fundazioa sortzeko erabakiaren balorazioa baikorra da. Lan osasunaren arriskuei aurre egiteko enpresen erantzukizuna handitzen ari gara, zerbitzu juridikoa hobetu dugu eta jurisprudentzia berritzailea sortu dugu. Lan istripuak eta gaixotasun profesionalak aitortzea lortu dugu, baita antsietatea laneko kontingentziazat onartzea ere; segurtasun-neurririk gabeko istripuetan kalte-ordain mardulak eskuratu ditugu eta genero zein sexu jazarpen kasuak publiko egin ditugu.

Bidelagunek lan osasunaren inguruko pedagogia lan handia egin du: trebakuntzak zerbitzu juridiko, egiturako nahiz ordukako liberatuekin eta delegatuekin, hitzaldi irekiak (amianto, silikosisa), eta lan osasunarekin lotutako protokoloen sorrera. UPV/EHU, A Coruña-ko Gizarte-Graduatuen Elkargoa eta Nafarroako Amianto Elkarte bezalako erakundeekin jardunaldietan parte hartu dugu, eta hedabideetan gaia landu dugu. Horri esker, Bidelagun erreferentzia bihurtzen ari da, ELA barruan eta kanpoan.

Pandemiaren ostean, lan osasun arloko lan-karga nabarmen handitu zen eta azken urteetan ez du behera egin. 2021-2024 artean intzidentzien kopurua bikoiztu egin da, 1.756 kasu artatuz. Lan-kargaren ondorioz, 2023 eta 2024an kasu larrienak bakarrik artatu ahal izan ditugu. Hazkunderik handiena arrisku psikosozialekin lotutako kasuetan izan da (482 kasu), baina baita lan istripuen ondorioetan (156 kasu) eta minbizia eragiten duten produktuen esposizioan ere (97 kasu, horietatik 34 amianto kasuak).

Lan Osasuneko Arloak lan eskerga egin du intzidentzia guztiei erantzuteko, baina horrek prebentzio ekimen aktiboak garatzeko aukera zaildu du.

9.7. Negoziazio kolektiboko kabinetea: enpresen azterketa tekniko eta ekonomikoa ekintza sindikalerako

Antolakuntza arazoen ondorioz, Negoziazio Kolektiboko Kabinetea etengabe ez-ohiko egoerari aritu da azken lau urteetan. Hala ere, taldearen ahaleginari esker, pertsona bat gutxiago izan arren, jarduna ez da eten, militanteen beharrei erantzunez.

Enpresen azterketarako eta negoziazio kolektiboetan edo enpresetako arazoei laguntza tekniko bikaina emateko gaitasun handia duen kabinetea dugu. Lortutako akordio on ugari eta negoziazio kolektibo anbiziotsuak ezin dira ulertu kabineteak egindako azterketa eta proposamenik gabe.

Urte hauetan, zerbitzu juridikoekin koordinazioa hobetzeko protokolo bat ezarri dugu, kaleratze objektiboetan ekonomialarien ekarpena sendotuz. Gainera, ERE eta konkurtsoetan espezializatutako taldeko ekonomia arduradunak egoera konplexuen kudeaketan eskuratu-tako ezagutza Negoziazio Kolektiboko Kabinetearekin partekatu izanak kide guztien trebakuntza-maila handitu du.

9.8. ERE eta konkurtso taldea: enpresen mehatxu eta itxierei aurre egiteko tresna

Azken kongresuan, enpresen krisi eta egoera konplexuenei erantzuteko ekipo espezializatu bat sortzea erabaki zen, dimentsio handiko kaleratzeak, konkurtsoak eta itxiera mehatxuek modu sendoan kudeatzeko. Zuzendaritza sindikala, ekonomikoa eta juridikoa bateratzen duen tresna da, langileei babesa eskaintzeko.



Urte hauetan, taldearen sorrera erabaki zuzena izan dela berretsi dugu. ELA da Euskal Herrian langileek duten tresna bakarra enpresen itxieri aurre egiteko. Taldeak lortutako eza-gutza teknikoa eta Greba Kutxa dira deslokalizazio, itxiera eta kaleratze estrategien aurkako oztopo nagusiak.

Beste sindikatuentzat, enpresen estrategiei aurre egiteko tresnarik ezean, itxiera edo kaleratzeak amaiera jakineko ekintza testimonial eta sinboliko dira, enpresen funtsezko erabakiak baldintzatzeko gaitasunik gabe. Horren erakusle dira Gestamp, Mecaner edo Cementos Rezola. Aldiz, ELA nagusi denean, enpresak bere hasierako asmoak modu esanguratsuan mugatu edo aldatzera behartzen ditugu. Horrela gertatu da Tubacex, H&M edo Glavistan. ELAk kaleratzeen aurkako borroka gidatzen duenean, haren muga langileek ezartzen dute, ez sindikatuaren baliabide edo prestutasun faltak.

Era berean, ERE eta Konkurtso Taldeak bere gain hartu du enpresak berreskuratu, langileen esku jarri eta ekonomia sozial eraldatzailearen logikan kokatzeko aukera eskaintzen duten trantsizio prozesuak zuzentzea. Jada hainbat enpresatan saiakera hauek egiten ari gara, nahiz eta gobernuen laguntza eskasa izan. Prozesu hauetarako gure gida 2022an, Talaios kooperatibarekin batera argitaratu genuen “Eraldaketaarako sindikalismoa eta ekonomia soziala” liburua da.

9.9. Kabinete Juridikoa: gai juridikoak sakondu eta estrategia sindikalari laguntzeko tresna

Azken urteotan, lan-sindikalaren konplexutasun juridiko eta teknikoa handitu egin da, eta horren aurrean, Kabinete Juridikoaren laguntza funtsezkoa bihurtu da.

Kabineteak bi norabidetan egin du lan: batetik, zerbitzu juridikoen gai espezifikoei sakontzeko aholkularitza eskainiz; bestetik, negozioazio kolektiboan ekarpen teknikoak eginez. Eguneroko jardunean, zerbitzu juridikoetako taldeari zailtasunak juridikoetan lagundu, irizpide teknikoak bateratu eta eduki berritzaileei buruzko informazioa ere zabaldu du.

Hileroko buletin juridikoa finkatu dugu, hilabete bakoitzeko epai esanguratsuenak hautatuz eta sindikatuan informazio juridiko eguneratua partekatuz. Prestakuntza juridikoa ere indartu dugu: azken bi urteetan urtean bi ikastaro antolatu ditugu zerbitzu juridikoko kideentzat, eta Harrera Planaren bidez kide berrientzako tutoretza pertsonalizatuak eskaini ditugu.

Negoizio kolektiboaren eraso eta alaketari aurre egiteko, ezinbestekoa da estrategia juridikoa. Horretan laguntzeko, Kabineteak ekarpen handia egin du dokumentazio juridikoa prestatzen, aholkularitza tekniko eta bide judiziala prestatuz negozioaren norabidea langileen interesen alde baldintzatzeko. Kabinetea giltzarri izan da negozio kolektiboaren plataforma eredu egokitzeko.

Klausula berritzaileak ere sortu ditugu digitalizazioa, telelana edota familia eredu berrietan kontziliazioa berme guztiekin arautzeko. Halaber, bere laguntza teknikoari esker akordio berritzaileak itxi ahal izan ditugu, hala nola Amazoneko azpikontrata batean legez kontra ari ziren langileen subrogazioa bermatzen duen akordioa eta horren ondorioz, transnazionalaren gainerako azpikontratetan enpresa aldatu arren lanpostuak eta lan-baldintzak mantentzeko klausulak.

9.10. Ekintza sindikalerako komunikazioa

Azken lau urteotan, aurreko kongresu arteko epean hasitako Komunikazio Planean sakondu dugu, komunikazioan eta teknologian ematen ari diren etengabeko aldaketetara egokitzuz.

Prozesu horrek etengabeko trebakuntza ahalegina eskatu digu, bai komunikazio ekipoari, bai sindikatu osoari.

Helburu horretan aurrera egiteko, Nazio Batzordeari, federazioei, eskualdeei eta arloei zuzendutako trebakuntza programa bat ezarri da, ekintza sindikalarekin loturiko komunikazioa indartuz. Plan honek idatzizko komunikazioa, sare digitalen kudeaketa eta propaganda-rako materialen prestaketa bildu ditu, koadroei eta militantziari tresna eraginkorrak eskainiz.

Genero-ikuspegitik, Komunikazio arloak gatazka eta mobilizazioetako parte hartzean dauden diskriminazioen identifikazioan lan egin du. Urtero bost komunikazio-ekintza aztertutitu emakumeen presentzia eta rola ebaluatzeko, aurrez ikusezinak ziren gabeziak zuzentzeko aukera emanez.

Hizkuntza-irizpideak ere indartu ditugu komunikazio feminista eta elebiduna bermatzeko, kasu batzuetan baita euskara hutsez ere. Hedabideetan albisteen eta elkarrizketen estaldura ere hobetu dugu, mezuak finduz eta ikuspegi analitikoago bat emanez.

Esparru digitalean, gure presentzia zabaldu dugu sare sozialetan. Instagramen 1.260 jarraitzaile gehiago ditugu urte eta erdian, eta aukera eman digu sindikalismo tradizionaletik urrurago dauden profiletara iristeko eta beste erakunde sindikal eta politiko batzuen aurretik jartzeko. Twitter-Xan, jarraitzaileek %17,5 egin du gora (10.585 jarraitzaile), eta Facebooken, %22,8 (6.490 jarraitzaile). Gainera, www.ela.eus web atariaren diseinu berriak albisteen hierarkizazioa hobetu du, sindikatuaren momentuko jardueraren ikusgarritasuna hobetu du, jende gehiagorengana iritsi gara eta zerbitzu gehiago eskaini ditugu.

Argitalpenei dagokienez, ALDA aldizkaria sendotu dugu erreferentzia sindikal eta politiko moduan (104.000 ale bi hilean behin). Bertan gure analisi sozioekonomiko, kultural eta politikoak plazaratu ditugu. Era berean, ELAren aldizkarian sindikatuaren printzipioekin lerrokututako bere iritzia emateko eta munduaz duten ikuspegia eskaintzeko konfiantza izan duten hainbat arlotako pertsona ezagunen parte-hartzea ere lortu dugu. Honekin batera, Landeia argitaratzen jarraitzen dugu, bi hilean behin ordezkariet sindikatuaren gai nagusiak helarazteko helburuarekin. 2022 geroztik Urtekaria argitaratzen hasi gara. Urtean behin afiliazio osoari banatzen zaio argitalpena eta urtero lortzen ditugun ehun garaipen sindikal baino gehiago jasotzen ditu, antolaketa-gaitasuna, sindikatuaren erabilgarritasuna eta militantzia- ren garrantzia nabarmenduz.

Azkenik, ELAren proiektio bisuala sendotu dugu, gure irudi korporatiboa erraz antzematen laguntzen duten eta kartel, bideo eta buletinetan aplikatzen ari garen kolore, tipografia eta grafismoarekin (600 material baino gehiago urtean). Egun, ikonografia propioa lantzen ari gara, baita sortutako material guztiak gainbegiratzen ere, milaka lantokitan koherentzia bermatzeko.

9.11. Manu Robles-Arangiz Fundazioak bultzaturiko trebakuntza, argitalpenak eta ikerketa

Epe honetan, Fundazioak sindikatuko koadroen eta ordezkarien trebakuntza politiko, organizazional eta teknikoan oinarritu du bere lana, eta eragile sindikal, politikoein, sozial eta akademikoekin aliantzak sendotu ditu.

Trebakuntza politikoa eta ideologikoa eskaini dugu, zaintza lanak, feminismoa, arrazakeria- ren aurkako borroka, hezkuntza, hizkuntza, Kataluniako egoera, ekonomia sozial eralda- tzailea, trans eta queer mugimenduak, trantsizio ekosoziala, militarismoa eta digitalizazioa bezalako gaiak jorratuz. Sei liburu eta hainbat dokumentu ere argitaratu ditugu Funda- zioaren bilduma ezberdinetan. Gainera, Genero Ekitaterako Planari jarraituz, protokoloak



eta inkestak txertatu ditugu, trebakuntza eta argitalpenak inklusiboagoak eta emakumeen interesetara egokituak izango direla bermatzeko.

Antolakuntzari dagokionez, lan-metodoetan gaitzeko programa bat garatu dugu, eta prestakuntza eman dugu bilera eraginkorrakoak egiteko, talde-lana hobetzeko, denbora hobeto kudeatzeko, modu planifikatuan lan egiteko eta lidergo egokia sustatzeko. Sindikalizazio-planaren barruan, koadro eta ordezkarietarako hainbat trebakuntza modulu diseinatu ditugu, Fundazioaren Moodle plataforman eskuragarri jarri ditugun materialekin, autotrebakuntza sustatuz prestatzaileen prestakuntza-metodologiaren bidez. Ildo beretik, eta arrisku psikosozialei aurre egiteko planarekin lotuta, lidergoaren eta ekipo-lanaren inguruko trebakuntza bultzatu dugu sindikatuaren zuzendaritzarentzat, datozen urteetan arduradun guztiei zabaltzeko helburuarekin.

Maila teknikoan, koadro berrientzako ikastaro espezifiko bat egin dugu, militante guztientzat eskuragarri jarri dugu lan-gida digital eguneratu bat Moodle plataforman eta berariazko beste bat sektore publikorako.

Pandemiak eragindako trebakuntza etenaldiaren ondoren, ordezkari berrien prestakuntzari ekin diogu berriro: 2.720 ordezkari berrik hartu dute parte ikastaro horietan, %46 emakumeak izan direlarik. Ikastaro honek epe honetan berrabiarazi dugun federazio bakoitzaren gai espezifikoak buruzko bigarren saio batekin du jarraipena, hurrengo urteetan sendotu behar dugun jarraipen saioa. Gainera, trebakuntza tekniko, organizazional eta politikoko katalogoak 158 ikastaro emateko aukera eman digu, 1.791 pertsonak parte hartu dutelarik.

Arlo akademikoan eta ikerketan, sindikalismoa ikertzen duen sare bat sendotu dugu Euskal Herriko Unibertsitatearekin lankidetzan. Marko horretan, Fundazioak, beste erakunde batzuekin batera, "Lana eta sindikalismoa XXI. mendean" Nazioarteko lehen Kongresua antolatu zuen, 50 ponentzia aurkeztu zirelarik, egindako lanaren eta ikerketa sindikala hartzen ari den gero eta garrantzia handiagoaren isla.

Fundazioak Ekonomia Sozial Eraldatzailerako hainbat proiektutan ere hartu du parte, hala nola Koop57 finantza etikoen kooperatiban edo Goierriko eskualdeko eraldaketako Biziola proiektuan. Olatukoop sareko kidea da ere bada eta harremanak izan ditu Hiritik At kooperatibarekin eta Udalbiltzarekin elikadura, teknologia, energia edota finantza burujabetzako tokiko proiektuak sustatzeko. Ipar Euskal Herrian Bizi! mugimenduak gidatutako Euskal Herria Burujabe dinamikaren barruan bultzatutako antzeko proiektuak.

Era berean, Manu Robles-Arangiz Fundazioa Foro Subiranistako kidea da, Espainiako Estatuan ezkerreko subiranismoaren inguruan kokatzen diren alderdi eta sindikatuen fundazioak biltzen dituen. Esparru horretan, hiru eskola subiranista antolatu dira Santiago de Compostelan, Mallorcan eta Gironan, eta urtero topaketak egin dira gaurkotasuneko gaiak aztertze-ko eta eztabaidatzeko.

Azkenik, Fundazioak Euskal Herria Digitala plataforman parte hartu du. Plataforma hori demokraziaren eta subiranotasun digitalaren inguruko eztabaida publikoa eta ekintza politikoa sustatzeko sortu zen. Plataforma horren bidez, hezkuntza, lana, demokrazia eta autodefentsa digital feministari buruzko hiru jardunaldi antolatu dira Errenterian eta Bilbon.

9.12. Nazioartean ahotsa, harremanak eta elkartasuna

Nazioarteko lana eta harremanak aztertzerakoan, bere garapena baldintzatu duten elementuak aipatzea ezinbestekoa da. Alde batetik, pandemiak eragindako etena ez da guztiz bideratu 2023. urtera arte. Eta bestetik, nazioarteko mugimendu sindikalak zailtasunak izan

ditu estrategia bateratu bat adosteko eta gutxieneko agenda bat sostengatzeko. ELAren ustez, honen atzean hiru faktore nagusi daude:

- a) Mundu mailako langileen aurkako eraso sistemikoaren aurrean indar korrelazio ahula.
- b) Tokian tokiko zailtasunak eta mugak.
- c) Sindikalismoaren eredua aztertzeke hausnarketa sakonaren falta.

Hala ere, testuinguru zail honek ez dio nazioarteko lanari balioa kentzen. ELArentzat oso garrantzitsua da beste eragile, erakunde eta errealitateen berri izatea, lan harremanak sustatzea eta Euskal Herriko errealitatearen eta ELAren erreferentzia zabaltzea. Azken urteotan, hainbat esparrutan jarduera esanguratsuak garatu ditugu.

ELAk CSIren (Nazioarteko Konfederazio Sindikala), CESen (Europako Sindikatuen Konfederazioa) eta IndustriALLen (Nazioarteko Industria Federazioaren) bilera ia guztietan parte hartu du, gure ekarpena eginez eta eztabaidetan gure posizioak defendatuz. Era berean, Gizalan eta Zerbitzuak federazioek dagozkien nazioarteko kongresuetan parte hartu dute, eta Europako Ekonomia eta Gizarte Kontseiluan interesekoak izan zaizkigun gaiak jorratu ditugu.

Aurreko urteetako dinamikari jarraituz, estaturik gabeko nazioetako sindikatuarekin lankidetzatza sendotu dugu, bereziki Quebeceko CSN sindikatuarekin, hainbat gairen inguruko proiektuetan. Autodeterminazioaren aldeko lankidetzatza ere jarraitu dugu, Sahara eta Palestinarekin elkartasun ekimenak eta beharrianak asetzeko proiektuak garatuz, nahiz eta testuinguru politikoak lankidetzatza-aukerak mugatu dituen.

Foro alternatiboetan eta elkartasun sareetan parte hartzen jarraitu dugu. Esaterako, ECSA (Alternatiben Europako Esparru komuna) sortu berrian ere parte hartu dugu. Momentu honetan, ordea, tamalez, foro hauek indar falta nabarmena dute.

Pobreturiko herrialdeetako sindikatuarekin elkartasun lankidetzatza sustatzeko afiliazioaren kuoten %0,4 bideratzen dugu, Belgikako CSC sindikatuarekin batera Indonesian, Bangladeshen eta Kanbodian hainbat proiektu lagunduz. Quebeceko CSN eta Alternatives-ekin Honduraseko sindikalismo feminista sustatzeko proiektua ere garatu dugu. Kasu guztietan trebakuntza sindikala bultzatzen duten ekimenak izan dira, lan prekarioari aurre egiteko antolakuntza sendotzera eta sektore feminizatuak indartzera bideratuak.



10. ONARPEN ESKAERA >>>

Duela lau urte ELAren Batzorde Eragile honi ildo estrategiko garbiak ezarri zizkion sindikatuaren organo nagusia den kongresuak eta, testuinguru konplikatu batean, onartu ziren ponentzia eta ebazpenetan ezarritako erronkei erantzuteko helburuarekin sindikatua gidatzeko ardura eman zigun. Nazio Batzordearekin batera, erronkei aurre egin eta ezarritako ildo estrategikoak aurrera ateratzeko lana sendo bultzatu dugu, baina txosten honetan azaltzen duguna ELAren militante guztiok proiektu kolektibo honi egiten diogun ezinbesteko ekarpenaren emaitza da. Egin dugun guztia ezin daiteke ulertu arduradun bakoitzak, ekipo bakoitzak, ordezkari taldeek, afiliatu guztiek eta, oro har, gutariko militante bakoitzak egin dugun ekarpenik gabe.

Txosten honetan jasotako berrikuntzak, aurrerapausoak eta egoera konplexuen kudeaketa ez lirateke posible izango sindikatuko militante eta arduradunek zuzendaritza talde honengan jarri duzuen konfiantza eta emandako babes eta laguntzarik gabe. Eskertzen dizuegu zuzendaritzari etengabe emandako estimulua, babesa eta aitortza, baita egindako eskaera eta zuzenketak ere. Gure lana hobeto egiteko ezinbestekoak izan dira. Ohorea izan da langile klaseari emana eta Euskal Herria aske eta burujabearen alde buru-belarri ari den erakunde hau gidatzea.

Hasieran esan bezala, Kudeaketa Txostena Batzorde Eragilearen kontu emate ariketa da, baina benetako protagonistak gu guztiok gara, sindikatuko militanteok. Militantziarik gabe, ezinezkoa litzateke konfrontaziorako eta eraldaketarako zuzendaritza lana.

Badakigu duela lau urteko ponentzia eta ebazpenetan jasotako guztia ezin izan dugula osotasunean bete, akatsak egin ditugula eta zenbait gauza hobetzeko aukera bazegoela. Orain, Eskualdeei eta Federazioei dagokizue kongresu arteko epe honetan egindakoa baloratzea, ongi eginak aitortzea, egin gabe geratu direnak, oker egindakoak edo hobeto egin zitezkeenak gogora ekartzea eta, azkenik, kongresu kideei egindako lanari eta txosten honetan jasotzen denari onarpena ala gaitzespena ematea eskatzea.

Gabeziak eta hobetu beharrekoak kontuan hartuta, Batzorde Eragileak zintzotasunez adierazi nahi dizuegu:

- a) Gure ustez, emandako agindua nahikotasunez bete dugula.
- b) Urte hauetan barne-kohesio osoz aritu garela, ekipo sendo gisa.
- c) Bai taldeak baita taldekide bakoitzak ere, gure onena eman dugula zeregin honetan.

Hori dela eta, azken lau urteetan egindakoa biltzeko helburua duen Kudeaketa Txosten hau onartzeko eskatzen diogu Kongresuari.



**LANGILERIA ANTOLATU,
GIZARTEA ERALDATU**
MÁS SINDICATO, MÁS VIDA